Kontzeju

Oñatiko Udal aldizkaria | 2015eko Maiatza | 250. zenbakia

www.oñati.eus
Herriko Ostiri
@OñatiOstiri
Kolaborazioak
Ohar-mota

Bost oñatiar

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

KONTZEJUPETIK | Garai berrietara egokituz

Ibilian ibilian 250. zenbakira iritsi da Kontzejupetik aldizkaria, eta erabaki dugu une egokia zela aldaketa edo berrikuntza batzuk egiteko.

Lehenengo aldaketa, aldizkariko paperean antzemango zenuten, ziurrenera. Aurrerantzean birziklatutako paper ekologikoan inprimatuko dugu.

Aldizkariaren diseinua ere berritu dugu, azal eta mami, atal berriak sartuz. Beste berrikuntza inportante bat ere bada: "anaia txikia" jaio zaio Kontzejupetik aldizkariari. Martxoaz geroztik asteroko boletin elektronikoa argitaratzen hari gara, udaletxeko eta herri mailako azken albiste eta deialdiekin, eta kultur agendarekin.

Horrez gain, sare sozialetan (Twitter eta Facebook) eta udalaren webgunean (www.oñati.eus) areagotu egin dugu gure presentzia. Beraz, eguneroko albiste eta deialdiak euskarri horien bidez zabalduko ditugu aurrerantzean, eta Kontzejupetik aldizkaria gaiak sakonago lantzeko erabiliko dugu.

ESKER ONEZ

1992ko irailean argitaratu genuen Kontzejupetik aldizkariaren 0 zenbakia. Ia 23 urte joan dira ordutik, eta uste dugu eskerrak emateko unea ere badela, ibilbide honetan lagun, lankide, aholkulari eta kolaboratzaile izan ditugun guztiei.

Lehen lehenik Jerardo Elortzari eman nahi dizkiogu eskerrak, zinez eta bihotzez. Hasiera hasieratik izan dugu gurekin, aldizkariari balio erantsi handia emanez, Oñatiko historia eta bertako ondareari buruzko azalpenak eta argibideak emanez, euskara jator eta dotorean betiere. Mila esker Jerardo, egiten diguzun ekarpen handiagatik.

Eskerrak halaber, Garbiñe Garai, Beatriz Irizar eta Marije Azkarretari, Laixan elkarteko kide gisa elkarrizketa oso interesgarriak egin zituztelako aurreneko lau urteetan, Oñatiko euskara jatorrean idatziak.

Eskerrak euskaltegiko lankideei ere. Hizkuntza aldetiko zalantzak argitu eta itzulpenetan laguntzeaz gain, Oñatiko euskarari eskainitako atal mamitsuak eskaini izan dizkigutelako. Zenbaki honetan ere atal berria (Itten bat) jarri dugu abian (38.orria).

Gure artetik joandako bi lagun ere gogoan ditugu. Batetik, Jose Mari Agirrebengoa 'Txinparta', udaleko Kultura teknikaria zena, eta aldizkariaren hasierako urratsetan lankide eta aholku emaile izan genuena. Eta baita Patxi Hipolito ere, bere ekimenez sortu baitzen 'Etxagok Ama Begira' gehigarria.

Eskerrak, bide batez, Etxagok gehigarriaren ardura izan duten Gaztelekuko kideei, hainbat urtez diseinugile eta maketatzaile lanetan jardun zuen Roberto Maiztegiri, eta aldizkariaren banaketan lan egin duten guztiei.

Eskerrak, baita ere, urte hauetan guztietan udaletxean izan diren arduradun politikoei, kolore bateko zein bestekoei, gure lana errespetatzeko egin duten ahaleginagatik, eta eskerrak baita ere, noski, udaletxeko teknikari eta langileei, informazio eske joaten garenean izaten duten pazientziagatik.

Eskerrak azkenik, azken urteotan parte hartzen ari diren kolaboratzaile, iritzi emaile, komikigile eta abarrei, musu truke egiten duten langatik, denon ekarpenari esker aberasten baita aldizkaria.

HERRITARREN ZERBITZURA

Bi helburu nagusirekin jaio zen aldizkari hau: euskararen normalizazioan laguntzea, eta udaletxean nahiz herri mailan albiste diren gaiak ezagutzera ematea. Eta horretan jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere, garaian garaiko egoera eta beharretara egokituz.

Baina, gogoratu, bereziki, herritarren zerbitzura dagoen tresna bat dela aldizkari hau eta, beraz, irekita gaudela herritarren aldetik etor daitezkeen proposamen guztiak aztertzera.

> Boletin elektronikoa

Kontzejupetik aldizkariaren osagarri, asteroko boletin elektronikoa argitaratzen hasi gara. Udaleko azken berriak eta deialdiak, herri mailako albisteak eta kultur agenda jasotzen dugu bertan. Ostiral goizero zure e-postan jaso nahi baduzu, harpidetza egin besterik ez daukazu. Dohainik da.

Harpidetu ondorengo kodea eskaneatuz:

> Sare sozialak

Sare sozialetako presentzia areagotzeko 'BERBIA' perfila sortu du udal komunikabideen sareak (Oñati Irratia, Kontzejupetik, www.oñati.eus web orria). Ondorengo perfiletan jarraitu ahal izango gaituzu.

Facebook: Berbia Oñati // Twitter: @BerbiaOñati

> Oñati Irratia

Udaleko eta herri mailako azken berriak egunero FM 107.4an.
Zuzenekoak:
12:00-13:30 eta
19:00-20:00.
Errepikapenak:
22:00-00:30

> Udalaren webgunea

Udaleko albisteak, deialdiak, kultur agenda...eta beste hainbat dokumentu interesgarri. Horien artean, Oñati Irratia zuzenean streaming bidez entzuteko aukera. **www.oñati.eus**

Ordenagailuan, tabletean edo mugikorrera egokitutako formatoan kontsultatu ahal izango duzu Udal Komunikabideen eskaintza zabala >>>

ZUAZOLA-LARRAÑA BHI

Urgain ESKOLA

Guztiona, guztion artean

Sartu ate guztiak zabalduko dizkizun prestakuntzara. Zurea da aukera!

Batxilergoa: Zuazola

- Banan-banako orientazio akademikoa: Unibertsitatera edo Lanbide Heziketara.
- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Talde txikiak.
- Teknologia berriak.
- Hizkuntzei arreta berezia:
  - Euskara, EGA eskuratzeko aukera.
  - Ingelesa, elkarrizketarako laguntzaileekin.
  - Frantsesa, Alliance Francaise titulua lortzeko aukera.
- Ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak (curriculuma garatzeko).

Modalitateak:

Zientziak: Matematika, Fisika-Kimika, Biologia-Geologia, Marrazketa Teknikoa, Teknologia,...
Gizarte zientziak: Historia, Geografia, Matematika, Enpresaren Ekonomia...

AURREMATRIKULA: maiatzaren 4tik-14ra.
Ate irekiak: maiatzaren 6an 18:00etan Zuazola egoitzan.

Heziketa Zikloak: Larraña

Erdi mailako Heziketa zikloak:

- Mantentze-Lan Elektromekanikoak
- Mekanizazioa
- Natur ingurunean gorputz eta kirol Ekintzen Gidaritza

Goi mailako Heziketa Zikloetarako sarbide frogarako prestaketa klaseak:

- Euskara
- Matematika

Bestelako Hezkuntza eskaintza:

- Lanerako prestakuntza: Langile eta langabetuentzat ikastaroak doan.
- Eskaeren araberako prestakuntza.

AURREMATRIKULA: maiatzaren 25tik ekainaren 5era.
Ate irekiak: maiatzaren 27an, 18:00etan Larraña egoitzan.

PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA

BIDEBARRI
Enplegu Zentrua

Tfno: 943 71 64 79
bidebarri@terra.com
iurrutia.bidebarri@gmail.com

ADMINISTRAZIO LANAK

- Langileak aurkitzea
- Kontratua egitea
- Gizarte Segurantzan alta ematea
- Nominak egitea

UDAL HAUTESKUNDEAK | 2015

"Epe luzerako herri proiektua daukagu. 2011n herritarrek eman ziguten konfidantza berretsiko delakoan nago"

MIKEL BIAIN BERRAONDO / EH Bilduren alkategaia

> 38 urte, ezkondua, bi umeren aita

> Enpresagintza ikasketak

> Finantza arloko langilea

EH Bilduren zerrendaburu izatea onartu duzu berriro. Lanean jarraitzeko gogoz?
Bai, lanean jarraitzeko gogoz eta indar berriarekin . Orain 4 urtetik hona ikasitakoarekin udal jarduna hobetzeko asmoz gainera.

Zein izango dira zuen jardunaren ardatz eta helburu nagusiak?
Gizarte politiken arloa indartzen jarraituko dugu, prestazioak ezezik, departamendua bera indartzea ere garrantzitsua da, oñatiarrei arreta eta zerbitzu onena eskeintzeko asmoz. Mugikortasuna eta Irisgarritasun hobetzeko lanekin jarraitu, hondakinen inguruko kudeaketan pausoak ematen jarraitu, Kirol instalakuntzen eraberritzerako inbertsioak, landa auzoen garapenerako eskumen eta aurrekontuak indartu…

Pertsonak dira EH Bilduren programaren zutabe nagusietako bat. Eta horren barruan, besteak beste, arreta soziala (gizarte zerbitzuak). Zein dira egitasmo nagusiak arlo honetan?
Udal konpententziakoak diren baliabide materialen sarea indartzea izango da helburuetako bat. Horrekin batera, Ongizate zerbitzuetako arloa indartuko dugu. Iada zerbitzuko teknikari arduradunaren lanposturako izendapena egin dugu eta beste gizarte langile bat kontratatuko da zerbitzua indartzeko. Erronka handiak datoz, 12/2008 legearen garapenari lotuta eta behar beharrezkoa da zerbitzuaren indartze bat. Biztanle piramidea ikusi besterik ez dago pertsonen zaintzak hurrengo urteotan izango duen garrantziaz jabetzeko.

Zerga politikari dagokionez, progresibitatea eta berbanaketa bultzatu nahi duzue. Neurri konkreturik?
Horiek izango dira printzipio nagusiak. Zergabilkaren azterketa analitiko bat eginez, zergaren banaketa justuago bat lortzea posible da. Lehen pausoak ematen ari gara, adib. Landalurretako kontribuzioaren banaketari dagokionean. Gainontzean egoera ekonomiko eskasenean dauden pertsonek gutxiago ordaintzeko neurriak hartzen jarraituko dugu.

> "Gizarte politiken arloa indartzen jarraituko dugu, prestazioak ez ezik, departamentua bera ere bai, oñatiarrei arreta eta zerbitzu onena eskaintzeko asmoz

> Progresibitatea eta birbanaketa bultzatuko ditugu zerga politikan, egoera ekonomiko eskasenean dauden pertsonek gutxiago ordain dezaten

Enplegua sustatzea da beste lehentasunetako bat. Zein dira egitasmoak sozioekonomia arloan?
Orain arte bezala, ekintzailetasuna laguntzea izango da helburuetako bat. Bideragarritasunerako aholkularitza zerbitzua, diru laguntzak eta nola ez ikasleak lan merkatura gerturatzeko zubi lana egiten jarraituko du udalak.

Kultura mailan, ETEO zaharrean sortzen ari den 'Eltzia' proiektua izango da ikur nagusia. Agintaldiko inbertsio gehienak bereganatuko al ditu?
Musika lokaletako inbertsioaren lehen fasea gauzatuko da printzipioz. Eta bigarren fasea ere posible da baina hori aurrerago erabaki beharko da.Lehen faseko inbertsioa 2011-2015 legealdiaren baitan egitea aurreikusten da, iada 2015eko aurrekontuan jasota dagoen moduan.

Kirol arloan ere erabaki inportanteak hartu beharko dira. Kiroldegia zahartuz doa, igerilekua txiki geratu da… Zer proposat-

HAUTAGAIEN ZERRENDA

1. **Mikel Biain**, 2. **Irati Etxeberria**, 3. **Borja Moiua**, 4. **Nerea Zubia**, 5. **Kepa Zelaia**, 6. **Ana Martin**, 7. **Rafael Kortabarria**, 8. **Leire Zumalde**, 9. **Oier Irizar**, 10. **Susana Altuna**, 11. **Aitor Orueta**, 12. **Aitziber Legorburu**, 13. **Gari Ibarzabal**, 14. **Lurdes Arregi**, 15. **Rafael Erostegi,** 16. **Esther Moiua**, 17. **Iñaki Aiastui**, 18. **Maider Usandizaga**, 19. **Jose Antonio Amundarain**, 20. **Izaskun Urteaga**

> San Martin guneko etxe tutelatuen eraikuntza fasea aurten bertan hasiko dugu. Aldundiak eta Jaurlaritzak oso positiboki baloratu dute proiektua. Zaintza eta arreta zerbitzuen gune integral bilakatuko da San Martin

zen du EH bilduk?
Erabakiak hartzeko legealdia izango da ,bai.Kirol instalakuntzen berriztapen mailakatu bat burutuko da eta lehentasunak zeintzuk diren erabakiko dugu egin beharreko inbertsioak burutzeko. Inbertsio beharra Igerilekura mugatzea akatsa litzateke nere ustez, kiroldegiaren baitan ez delako elementu isolatu bat.

Hirigintza mailan zein izango dira egitasmo nagusiak?
Irisgarritasuna, mugikortasuna eta oinezkoendako espazio publikoa berreskuratzea da helburua. Atzeko kaleko azken zatia oinezkoendako egokituko dugu 2016rako eta Martzelino Zelaiarako era proposamen bat egingo dugu. Hiri eremuan aparkalekuak egokitzeko inbertsioak aurreikusten ditugu. Unibertsitate zaharra eta bere inguruko kaleen irisgarritasun eta aparkaleku proposamenak egingo ditugu.

Ingurumen arloan, urrats handia izan zen atez atekoa martxan jartzea. Zein dira hurrengo egitasmoak?
Pauso handia izan da benetan eta Oñatiko herritargo zabalak bere etxeko sukaldetik ardura handiz egin duena gainera. Alde horretatik nik esan behar dut benetan harro sentitzen naizela herriak erakutsi duen jarrera arduratsuagatik. Bide horretan urratsak ematen jarraituko dugu. Kontzientziazio lana ere burutuko dugu hondakinen sailkapena ezezik kaleak garbi mantentzearen inguruan.

Gainerako arloetako egitasmoei dagokienez, zer azpimarratuko zenuke?
Apartamentu tutelatuen proiektua esleipen fasean sartu da iada, eta hilabete gutxitan eraikuntza fasean izango da. Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundian izan ginen otsailean proiektua aurkezten eta oso positiboki baloratu dute bi instituzioek. San Martin gunea zaintza eta arreta zerbitzuen gune integral bilakatuko da.

Ahalegin berezia egiten ari gara aipatu gunea ahal bezain atseginena bihurtzeko. Aldakiñoko basoa balorean jarri, aisialdi baratzak…Proiektuaren emaitza oso ona izango delakoan nago.

> Kirol instalazioen berriztapen mailakatua egingo dugu. Inbertsio beharra igerilekura mugatzea akatsa litzateke, kiroldegiaren baitan ez delako elementu isolatu bat

> Atzeko Kaleko azken zatia oinezkoendako egokituko dugu eta Martzelino Zelaia kalerako ere proposamen bat egingo dugu

Zergatik botoa EH Bilduri?
4 urtean gobernu arduretan egindako lanak jarraipena behar duelako. EHBilduk Oñatirako daukan proiektua ez delako 4 urtera mugatzen. Epe luzerako herri proiektu bat dakargu eta gidalerro nagusiak ezezik, hurrengo urteetarako Herri Programa landu bat daukagulako.

Kiniela egitera ausartzen al zara? Zenbat zinegotzi lortzea espero duzue?
Ez naiz izaten kinielak egin zale, baina 2011an herritarrek eman ziguten kofidantza berretsiko delakoan nago.

UDAL HAUTESKUNDEAK | 2015

"Gobernatzeko bokazioarekin gatoz. Gure aukera besteak baino hobea dela ikustarazi nahi diogu jendeari"

MIREN ELGARRESTA LARRABIDE / EAJren alkategaia

> 50 urte, ezkondua, bi seme-alaben ama

> Albaitaria. Produkzioa eta ekonomia espezializatua

> Arantzazuko parketxeko proiektuen teknikaria

Duela lau urte ere aurkeztu zinen EAJren zerrendan (10. tokian) baina orain alkategai bezala. Zerk bultzatu zaitu erronka hartzera?
Nire bizitzaren ibilbidean hainbat egoera edota proiektu heldu dira nire eskuetara non nire inplikazioa behar zuten. Sinesten dudan proiektuan inplikatzeko joera izaten dut eta hau horietako bat da. Horrez gain nire familiaren babesa eta sostengua dut, eta hori izan da gehien bultzatu nauen arrazoia.

Aurpegi berriak ikusi ditugu EAJren zerrendan. Gainera, lehen sei hautagaietatik lau emakumeak dira. Nahita egindako apusuta al da?
Lan taldeak funtsezko osagarriak ditu. Gazte-heldua da. Lan munduan eskarmentu handiko jende prestatua da.Gehienak politikagintzan gutxi aritutakoak. Hala ere, udal gobernuan eskarmentu handiko bi pertsona ditugu. Lourdes Idoiaga alkate ohia horietako bat da. Berak udalean azkeneko urteetan jaso duen eskarmentua bistan da eta herrian oso ondo baloratuta dago.

Aurreneko seietan lau emakume egotea kasualitatea da. Hala ere esan beharra dut emakumeen presentzia eta inplikazioa handiago hori gizartean beste esparruetan ere gertatzen ari den fenomeno berbera dela.

Gobernu ardurak berreskuratzeko helburuarekin aurkezten zaretela esan duzu.
Zalantzarik gabe. Oñatiko EAJ-PNV alderdiak 32 urte eman ditu udal gobernuan. Lehenengo legealdian hasi eta 2011ra arte. Gobernatzeko bokazioa eta ezagutza zabala dugu.

Kudeaketa eraginkorra, gardentasuna eta herritarrekiko gertutasuna izango omen dira EAJren jardunaren ardatz nagusiak.
Eredu hau ez da hemendik aurrera ezarriko den gauza bat. EAJ-PNV alderdiak bere kodigo etikoan betidanik barneratuta duen eredua da. Egun "Gobernu Ona" dekalogoan jasota dauden ezaugarriak dira eta geure egingo ditugu. Politikari guztiek indarrean ezarri beharko lituzketen ezaugarriak dira.

Behin eta berriz azpimarratu duzu ekonomia krisiari aurre egitea izango dela EAJren lehentasuna. Zertan edo nola gauzatuko da?
Herriko enpresen eta etorri daitezkeen iniziatiba berrien bidelagun izanik. Enpresa bere kontzepzio osoan gure ekonomiaren oinarria da. Enpresarioak edota ekintzaile berriak (enprendedoreak) gehi langileak, denak aintzat hartuta. Herrian ditugun enpresek dituzten arazo teknikoei aurre egiteko laguntza eskainiz. Udal batek dituen eskumenak ain-tzat hartuta jakina.

> "Ekonomi krisiari aurre egitea izango da gure lehentasuna, herriko enpresari, ekintzaile eta langileen bidelagun izanik

> Atez atekoak 200.000 euroko defizita sortzen dio urtero Udalari eta gainera herria askoz ere zikinago dago. EAJren eredua 5. kontenedorea da

Hondakin bilketari dagokionez, 5. edukiontziaren alde agertu izan da EAJ. Gobernura iritsiz gero, kendu egingo al duzue atez atekoa?
Oñatiko atez ate zabor bilketa sistema Bilduren inposizioa izan da. Presaz eta planifikazio gabe ezarritako sistema hau dezente garestiago aterako zaio herritarri. Azkeneko datuen arabera, Herrikontuen euskal epaitegiak salatu du Debagoienean urte batez zaborren zerbitzuaren kostea bikoiztu egin dela. Dakigunez Oñatiko herriari atez ate sistemak urtean 200.000tik gorako defizita

HAUTAGAIEN ZERRENDA

1. **Miren Elgarresta**, 2. **Lourdes Idoiaga**, 3. **Amaia Erostarbe**, 4. **Jon Kepa Gerrikagoitia**, 5. **Richar Fernandez**, 6. **Marijo Etxegoien,** 7.**Jabi Balzategi**, 8. **Olatz Agirre**, 9. **Aitor Urzelai**, 10. **Kontxi Egaña**, 11. **Xabier Mugarza**, 12. **Nekane Maiztegi**, 13. **Angel Mari Biain**, 14. **Luis Anduaga**, 15. **Margarita Mejia,** 16. **Isidro Palacin**, 17. **Lourdes Urtaza**, 18. **Mikel Gartzia**, 19. **Ainhoa Irizar**, 20. **Aittor Arregi**

sortzen dio eta gainera Herria askoz zikinagoa dago.

Bilduk arduragabeki jokatu du zaborraren kontu honekin, Oñatiko 2416 sinadurei muzin eginez. EAJ eredua 5. Kontenedorea da, hondakin guztiak kontenedorez jasotzea, Gipuzkoako %80ean bezala eta beharrezko kontzientziazio kanpainak egitea birziklapena sustatzeko.

Kirol mailan Urrutxun atletismo pista egitearen alde azaldu izan da EAJ. Zein izango dira lehentasunak datozen lau urteetan?

Urrutxuko pista aurreko legealditan aurreikusita zegoen proiektua da. Urrutxuko zabortegia estali eta kontaminazioa ekidin ondoren kirola egiteko leku egokia sortu zen. Bertan, batez ere eskola kirola hobeto antolatzea eta azpiegitura egokiak ez dituzten kirolei lekua egitea zen gure asmoa. Helburua atletismorako edo beste kiroletarako leku aproposa eraikitzea da. Bilduk ordea erabat baztertu du proiektu hau.

ETEO zaharrean martxan jartzen ari den 'ELTZIA' egitasmoa nola ikusten duzu?

Azpiegitura hau hutsik geratu zenean "proiektu lehiaketa" deitzeko aukera paregabea zen. Bertan kultura sormena lan-tzeko, musika, arte plastikoak, antzespenak, etab. izan zitekeen aukera bat edo gazte nahiz adinekoentzat apartamenduak egokitzea beste bat. Positiboa da guretzat gaur egun Eltzian parte hartzen duten guztien ekarpena baina gure ustez planifikazio integral batekin aukera gehiago emango zituen eraikinak.

Gainerako arloetan, zein izango dira EAJren egitasmo nagusiak:

Gizarte zerbitzuen arloan pertsona ahulenak babestea izango da gure lehentasuna. Hirigintzari dagokionez herri garbia, mugikortasun jasangarria eta alokairuzko etxeak izango dira gure arda-tzak. Etxeak birgaitzeko laguntzak ere emango ditugu.

Mugikortasun arloan auzoetara joan-etorriek izango dute lehentasuna. Ugarkalde-Kasablanka eta auzoen arteko udal zerbitzua, besteak beste. Egun dugun autobus zerbitzuaren ordutegian dauden akatsak konponduko ditugu.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzari arreta berezia eskainiko diegu, elkarlan publiko-pribatua sustatuz, sektorearen interesak zainduz.

Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatuko dugu, etorkinei formazioa emanez.

Turismo arloan eskaintza zabaldu eta bisitarientzako ikurrak eta argibideak hobetuko ditugu.

Komertzio txikiari lagunduko diogu, ekonomia eragile garrantzitsua delako, eta lehiatila bakarra sortuko dugu, edozein kudeaketa errazteko.

> Urrutxuko gunean Eskola Kirola hobeto antolatzea eta azpiegitura egokiak ez dituzten kirolei lekua egitea da gure asmoa

> Positiboa da Eltzian parte hartzen duten guztien ekarpena, baina gure ustez planifikazio integral batekin aukera gehiago emango zituen ETEOko eraikinak

> Oñati irekiagoa eta lagunkoiagoa eraiki nahi dugu, oñatiarrekin batera eta ez bizkarra emanez herritarrei

Kiniela egitera ausartzen al zara? Zenbat zinegotzi lortzea espero duzue?

Gurea irabazteko apustua da. Kontua ez da zenbat zinegotzi atera nahi ditugun. Lehen esan bezala gobernatzeko bokazioarekin gatoz. Beraz gure erronka nagusia da jendeari sinestaraztea gure aukera hobea dela.

Zergatik botoa EAJri?

EAJ-PNV alderdiak aldarrikatzen duen leloari jarraituz "Bestelako Oñati" eskainiko duelako; inposaketarik gabeko Oñati bat, irekiagoa eta lagunkoia. Gure bizitza kalitateari eusteko beharrezkoa den ekonomiaren sustapenean guk bakarrik sinesten dugulako eta urte askotan horretarako lan egin dugulako. Oñatiarrekin eraiki nahi dugulako etorkizuna eta ez oñatiarrei bizkarra emanaz eta ez dugulako Oñati atzean geratzerik nahi, Bilduk gobernatu duen herri askotan bezala. Gaur egun ezagutzen dugun Oñati EAJk eraikia delako.

UDAL HAUTESKUNDEAK | 2015

FERNANDO SAN MARTIN GUBIA / PSE-EEren alkategaia

> 55 urte, irundarra, ezkondua
> Filosofia eta Letretan (Historia eta Geografia) lizentziatua
> Irakaslea

"Oñatiko herritarren artean dagoen aniztasuna ikusgarri egitea da gure helburua"

Nolatan irundar bat Oñatin hautagai?
Alderdiak eskaini didan erronka bat da. Badut esperientzia zinegotzi lanetan, eta Oñatin badago jendea PSE-EE udaletxean ikusi nahi duena. Beraz, aurrera.

Tamalez, ez da posible izan Oñatiko bertako ordezkaritza bat osatzea. Terrorismoak eta nazionalista ez direnen aurkako jazarpenak arrasto handia utzi du. Egoera aldatuz doa, eta espero dezagun etorkizunean bertako jendea aurkeztu ahal izatea normaltasunez.

Zein helbururekin aurkezten zarete?
Helburua da PSE-EEk Oñatin izan duen ordezkaritza berreskuratzea. eta oñatiarren artean dagoen aniztasun edo pluraltasuna ikusgarri egitea. Nik, pertsonalki, gestio mailan dudan esperientzia eta akordiotarako borondatea eskaini nahi ditut. Oñatiko gizon eta emakumeen beharrei adi egoteko konpromisoa hartzen dut.

Baduzu esperientzia udalgintzan, ezta?
Bai, hogei urtez izan naiz zinegotzia Irungo udaletxean, kultura, hezkuntza, euskara, kirolak eta gazteria bezalako arloetan. Baloreak, bakea eta berradiskidetzearen alde ere egiten dut lan.

> "Udaletxean sartzen banaiz, atez ateko bilketa sistema kentzea defendatuko dut, inposatutakoa delako eta, gainera, askoz garestiagoa

Ezagutzen al duzu Oñati? Zein izango dira zure egitasmo nagusiak?
Ezagutzen dut Oñati, bai, ondare historiko-artistiko ederra du. Arantzazun ere sarri izan naiz, Baketik zentroan.

Nire egitasmo nagusia da herritar guztiak aintzat hartuko dituen gestio eredu plural baten alde lan egitea.

Atez ateko bilketa sistema kentzea defendatuko dut, inposatutako sistema delako, eta askoz ere garestiagoa, Herri Kontuen Epaitegiak esan duen bezala.

Lanpostuen sorrera eta gizarte zerbitzuak indartzeko neurriak bultzatuko ditut estuen dauden herritarrei laguntzeko. eta apustu sendoa egingo dugu industriaren alde.

Zergatik botoa PSE-EEri?
Oñatiko gizon-emakume aurrerakoiei esan nahi diet PSE-EE alderdiak aukera edo bide bat eskainiko diela beraien kezka eta beharrak udalera eramateko. Herritarren hitza hartuko dugu kontuan beti, inposiziorik gabe.

Tomas Mayo arabarra da PPren alkategaia

Tomás Mayo Sierra arabarra da Oñatiko udaletxerako popularren hautagai zerrendako burua. 2011n galdu zuten ordezkaritza berreskuratzea izango da PPren helburua. 1999tik 2011ra bitartean zinegotzi bat izan zuten popularrek Oñatin. Tomas Mayo jaunak ez du baliatu nahi izan aldizkari honek eskainitako espazioa bere egitasmoen berri emateko.

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia
Orain Oñatiarron zerbitzura!
Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

NII moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Udal hauteskundeetako HISTORIKOA

2011	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
Bildu	3.308	11
EAJ	1.936	6
Aralar	238	-
PSE-EE	238	-
PP	203	-
Ezker Batua	190	-
Hamaikabat	182	-

2007	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	1.867	7
EA	659	3
Oñati Ezkerretik	1.041	4
PP	216	1
PSE-EE	291	1
Baliogabeak	1.304	-

2003	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ-EA	3.807	14
Ezker Batua	515	1
PP	361	1
PSE-EE	310	1
Baliogabeak	1.592	-

1999	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ-EA	3.042	9
EH	2.441	7
PP	468	1
PSE-EE	311	-

17 ZINEGOTZI dagozkio Oñatiri

Herri bakoitzari zinegotzi kopuru bat dagokio daukan biztanle kopuruaren arabera. Oñatik gaur egun 11.282 biztanle dituenez (azken datu ofiziala), 17 zinegotzi dagozkio, ondoko taulako eskalak erakusten duen moduan.

BIZTANLEAK	ZINEGOTZIAK
100 biztanleraino	3
101etik 250 era	5
251etik 1.000 era	7
1.001etik 2.000era	9
2.001etik 5.000era	11
5.001etik 10.000era	13
10.001etik 20.000era	17
20.001etik 50.000era	21
50.001etik 100.000era	25

> Posta bidezko botoak

Bozka posta bidez eman nahi dutenek maiatzaren 14ra arteko epea dute eskaera egiteko. Posta bulegoan egin daiteke eskaera nortasun agiria aurkeztuz.

Alderdi batzuek tramite hori betetzen laguntzen dute. Hala, EH Bilduk Bidebarrieta 18ko erabilera anitzeko gelan eskaintzen du zerbitzua, astearte eta ostegunetan (11:00-13:00 / 18:00-20:00) eta larunbatetan (11:00-13:00). Harremanetarako: 639199955 / *postabidezkobozka@gmail.com*

Bestalde, EAJ-PNVk egunero eskaintzen du zerbitzua Batzokian (18:30-19:30). Harremanetarako: 943780117.

> Hautesle kopurua

Maiatzaren 24ko hauteskundeetan 8.883 oñatiarrek izango dute botoa emateko eskubidea.

> Batzar Nagusiak

Udaletxeko zinegotziak ez ezik, Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariak ere hautatu behar ditugu maiatzaren 24an, eta kasu honetan sei hautagaitza izango ditugu aukeran Deba-Urola barrutian: EH Bildu, EAJ, PSE-EE, PP, Podemos eta Irabazi-Ganar koalizioa (Ezker Anitza-IU, Equo...).

Hautagaitzei erreparatuz, bi oñatiar azaltzen dira, biak ere EH Bilduren Deba-Urola barrutian: Iosu Lizarralde (6. tokian) eta Jone Arrazola (9. tokian).

italde
TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA
ETXEBIZITZETAN AUKERARIK HANDIENA
• San Martinen
• Kurtzekuan
• Kasablankan
PREZIO BEREZIAK!!
Ramón Irizar kalea 2 • OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

EZKONTZETAN
2015-2016 urteetan
Informazio gehiago,
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com
Etxe-Aundi

Errespetua, istripuak ekiditeko giltzarria

Mugikortasun segururako hezkuntza saioak egiten ari da udaltzaingoa 10-16 urteko gazteekin

BESOAK DIRA BIZIKLETA GIDARIAREN INTERMITENTEAK ETA BERAZ KEINU ARGIAK ETA NABARMEN EGITEN OHITU BEHAR DUGU, LOTSATU BARIK

Azkenaldian maiz ikusiko zenituzten ikasle taldeak bizikletan txaleko horiz jantzita, udaltzain batek lagunduta. Mugikortasun Segururako hezkuntza saioak jasotzen ari diren gazteak dira. Udala, Hezkuntza Mahaiaren proposamena aintzat hartuz, orain dela hiru urte hasi zen saio hauek eskaintzen. Orain arte azpikontratatutako enpresa baten bidez, eta aurten, lehen aldiz, udaltzaingoaren ardurapean.

Modu autonomoan ibiltzen diren 10-16 urte arteko gazteei zuzendutako saioak dira; 3 ordu guztira, teoria eta praktika uztartuz. Helburua da, herri barruan modu seguruan ibiltzen ikastea eta, ahal den neurrian, istripuak ekiditea edo ondorioak arintzea behinik behin.

HITZ KLABEA, ERRESPETUA

Eta horretarako hitz edo kontzeptu klabea da 'ERRESPETUA', Eñaut Unamuno udaltzainak azaldu digunez. "Errespetuz jokatzen badugu, denok irabaziko dugu". Izan ere, istripurik gehienak gure jokabide edo portaera desegokien ondorio izaten dira. Beraz, trafiko seinaleak ikastea baino garrantzitsuagoa da jokabide seguruak bultzatzea, eta pertsonok dugun arriskuaren pertzepzioa areagotzea. Horregatik, prebentzioa, erantzukizuna, arreta, zuhurtzia eta elkarbizitza bezalako konpetentziak lantzen dituzte ikasleekin, bideo, dilema, joku eta talde-eztabaiden bidez.

ARRAULTZAREN ESPERIMENTUAREN BIDEZ KASKOA JARTZEAREN GARRANTZIA LANTZEN DUTE

EÑAUT UNAMUNO / Udaltzaina

> Istripurik gehienak geure jokabide desegokien ondorio izaten dira. Horregatik, bide-seinaleak ikastea baino garrantzitsuagoa da jokabide seguruak bultzatzea. Errespetuz jokatuz denok irabaziko dugu

Gero, bizikleta hartu eta saio praktikoa egiten dute herriko kaleetan barrena. Errepidera modu seguruan irteten, besoen bidez (gure intermitenteak) keinuak egiten, bidegorri mota ezberdinetan ibiltzen, edota errotonda batean nola jokatu behar den ikasten dute, besteak beste. Kaskoa erabiltzearen garrantzia (16 urtera arte derrigorrezkoa da) eta herri barruko abiadura mugak (30km/0. gehienez) ere gogorarazten die udaltzainak.

Baina inportanteena, esan bezala, errespetua da; errespetuz jokatzea, arretaz ibiltzea eta enpatia, hau da, besteen lekuan jartzea.

HELDUOK EREDU

Ikasleek ez ezik, herritar guztiok kontuan hartu beharreko kontzeptu edo baloreak direla dio Unamunok, ez baita ahaztu behar, urte guztian zehar helduok garela gazteen ereduak, eta geuk egiten duguna egingo dutela beraiek ere.

Euskaltegiko zozketan sarittua

Herrittarrak euskara ikastera animaitteko asmuagaz, ikasturte osoko matrikula baten zozketa egin daue udal euskaltegixan, bertako ikaslien artian. Matrikula bere poltsikotik ordainddu izana zan zozketan parte hartzeko baldintza bakarra. Zozketia egindda, 8. urratseko **Nerea Arregi Ortiz de Zarate** ikaslia izan da irabazlia, eta sari moduan berak matrikula kontzeptuan ordainddutakua jasoko dau, 348€, baiña txantxittan, Udalak sarixetarako erabagittakuari jarraittuaz.

Oñati haurren begiekin

Nola ikusten dute Oñati haurrek? Nola bizi dituzte kaleak, plazak? Zeintzuk dira autonomiaz eta seguru ibiltzeko haurrek eurek ikusten dituzten zailtasunak? Helduok herria ulertzeko dugun modua eta haurrena ez dira berdinak, baldintza fisiko desberdinak ditugu bai, baina baita errealitatea hautemateko eta batez ere aztertzeko era desberdinak ditugu.

Eskolako Bidea proiektuan haurrek eskolarako bidean egiten dituzten ibilbideak aztertu ditugu, haurrekin batera. LH5 edo 6. mailako ikasleekin egin dugu lanketa hau. Bide segurtasuna zela hautematen duten eta zeintzuk diren eurek bizi dituzten arriskuak, zailtasunak edo trabak.

Haurrek, euren mugikortasun jasangarria eta segurua oztopatzen duten 120 puntu baino gehiago identifikatu dituzte. Gehienak herrigunean, baina baita auzoetan ere. Gehien aipatzen duten arriskua autoak eta hauen abiadura dira (markatutako puntuen %27a). Bidegurutze arriskutsuak, ikuspen eskaxeko guneak direlako edo autoek ez dituztela ikusten hautematen dutelako (%20). Beste traba bat espaloi estuak dira (puntuen % 17). %10a espaloien, bidegorriaren edo galtzaden mantenimentu eskaxa izan dira. Argi falta eta kale zikinak puntuen %5 osatu dute bietako bakoitzak.

Garbi geratu da azterlanean Oñatiko haurren begiekin ikusita trafikoa, autoak eta bereziki arauak errespetatzen ez dituzten autoak, espaloian aparkatu edo zebrabideak errespetatzen ez dituztenak direla arrisku faktore nagusia.

Espaloian aparkatu edo zebrabideak errespetatzen ez dituzten autoak dira arrisku faktore nagusia haurren ikuspuntutik

Titulatu berrientzako Udalaren beka deialdia zabalik dago oraindik

Martxoko zenbakian aurreratu genuen moduan, herriko gazte titulatu berriei zuzendutako beka deialdia egin du Udalak, herriko enpresetan proiektuak eginez lehen lan esperientzia kualifikatua errazteko asmoz.

Helburu horrekin, Udala eta Saiolan herriko lantegiak bisitatzen ari dira eta, dagoeneko, hamar enpresa interesatuta agertu dira programa honetan parte hartzeko. Horietako bik, gainera, aurkeztu dute beraien proiektua, eta batentzat oraindik ez dago perfil egokidun titulaturik poltsan; beste enpresarentzat aurkeratu da titulatu bat, eta maiatzean hasiko da lanean.

Gogoratu, titulatu berrien lan poltsa honetan izena emateko, titulua gehienez ere azken bi urteetan lortutakoa izan behar dela. Bekak 3-6 hilabeteko iraupena izango du, eta 600 euroko hileroko ordainsaria jasoko du bekadunak, eguneko sei orduko lan jardunaren truke. Programa honetan izena emateko epea azaroaren 30era arte dago zabalik, Enplegu zerbitzuan (Bidebarrieta 12).

Pertsona nagusien zaintza ikastaroko diplomak banatu ditu Udalak

Udalak Bastida akademiaren bitartez eman duen zaintza ikastaroa osatu duten hamalau lagunek diploma jaso dute Mikel Biain alkatearen eskutik. Orain, Udalak antolatu duen bigarren mailako ikastaro batean ('Pertsonei arreta soziosanitarioa ematea etxean') parte hartzeko aukera izango dute.Bertan lortutako titulua ofiziala da, eta zaintzaren arloan lan egiteko edo espezializatzeko aukera zabalduko die. Gogoratu, laister profesional ziurtagiria beharko dela zaiantza eta etxeko lanetan aritzeko. (Enplegu zerbitzua: 943037700).

ARANTZAZU GARCIA COLINAS | Osasun publikoko langilea

"Autoanalsititik autokontrolera pasatzea da ikerketa honen helburua"

Diabetesaren inguruan Arantzazuk zuzendutako ikerketa lan batek Osasun Ministeritzaren saria jaso du

HUESCAN BIZI DA AZKEN 17 URTEOTAN ARANTZAZU GARCIA COLINAS OÑATIARRA, ETA BERTAKO OSASUN ZERBITZU PUBLIKOAN (SALUD) EGITEN DU LAN, ALCAÑIZEKO OSPITALEAN. LEHEN MAILAKO BOTIKARI ETA FARMAZIA ZERBITZUKO ARDURADUNA DA. GAINERA, ARAGOIKO LEHEN MAILAKO MEDIKAMENTUEN EBALUAZIO BATZORDEKO ARDURADUNA DA, ETA BESTE ERKIDEGO BATZUEKIN (ANDALUZIA, EUSKADI, KATALUNIA...) OSATZEN DUTEN BATZORDE MISTOKO KIDE ERE BADA, ARAGOIKO ORDEZKARI GISA.

Diseño e intervención sobre el autoanálisis de glucemia capilar en diabetes mellitus' du izenburua Arantzazuk zuzendu duen ikerketak. Zortzi urteko lanaren emaitza da. Diziplina ezberdinetako profesionalek (endokrinoak, familia medikuak, pediatrak, ginekologoak, erizainak, informatikariak...) elkarlanean egin dute, Arantzazuren zuzendaritzapean. Gluzemiaren kontrolerako erabiltzen diren tiren erabilera egokitzea da helburua, autoanalisitik autokontrolera pasatuz.

ARANTZAZU GARCIAK NAFARROAKO UNIBERTSITATEAN EGIN ZITUEN FARMAZIA IKASKETAK, ETA GRANADAKO UNIBERTSITATEAN MASTERRA.

Diabetes gaitzaren inguruan egin duzu ikerketa. Zergatik?

Diabetesa (Diabetes Mellitus da izen zientifikoa) gaixotasun edo sindrome metabolikoa da, azukrearen metabolismoarekin lotuta dagoena. Diabetesa, glukosa maila odolean handitzea dakarren gaixotasun kronikoa da. Gaixotasun hau gerta daiteke pankreasak intsulinarik sortzen ez duelako, edo gorputzak sortutako intsulina egoki erabiltzen ez duelako.

Betidanik interesatu zaidan gaitz kroniko bat da; agian, etxean ikusi dudalako. Gaixotasun kroniko bezala, behin agertuz gero betirako da, eta nahiz eta milioika pertsona dauden diabetesarekin (%13,8 prebalentzia 'Di@bet' estudioak dioenez) ez da behar beste ikertzen. Gainera, urtetik urtera gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da.

Azkenengo 20 urteotan, tratamentuetan aurrerapenak egon dira eta bizitza kalitatean ere bai, batez ere gaixotasunak luzarora dakarzkien konplikazioetan; baina oraindik lan asko egiteko dago. Gaixotasun kroniko hauetan, oso garrantzitsua da prebentzioan lana egitea; bestela, gaixotasunaren kontrola txarra izan bada, denborarekin osasun arazo larriak agertzen direlako.

Beraz, prebentzioan eta, konkretuki, gluzemiaren autoanalisiaren inguruan aurrerapauso bat eman nahi izan dugu ikerketa honen bidez.

Zer lortu nahi izan duzu?

Helburua zen gluzemiaren autoanalisirako erabiltzen diren tiren

erabilera egokitzea, bai paziente eta baita osasun profesionalen artean ere, autoanalisitik autokontrolera pasatzeko.

Gluzemiaren autoanalisia, pazienteak makina batekin egiten duen azukrearen odol neurketa besterik ez da. Eta guk, autoanalisitik autokontrolera pasatzea nahi dugu.

Autokontrolaren osagaiak aldakorrak izan daitezke, baina oro har, honakoak dira: gaixotasunaren ezagutza, dieta eta farmakotratamendua, gorputz-ariketa, diabetesaren konplikazioei aurre egiteko erak, nork bere oinak zaintzea eta autoanalisia (tratamenduaren egokitzapenak eginda paziente hautatuetan).

Eta konkretuki, zein aldaketa edo berrikuntza proposatzen duzue helburu horiek lortzeko?

Gluzemia-tiren inguruan dagoen aldakortasuna eta erabilera murriztea, bai paziente eta baita osasun profesionalen artean ere. Horretarako, lan handia egin behar izan dugu arlo ezberdinetan:

-Osasun profesionalak, batez ere erizainak, diabetesaren zaintzarako prestatu.

-Paziente diabetikoen heziketa landu eta autokontrolerako inplikazioa lortu.

-Programa informatiko bat garatu.

- Emaitzak neurtu eta etengabe hobetzen joan.

Zer nolako emaitzak lortu dituzue?

Emaitza onak lortu ditugu. 2008an gluzemia tiren erabileran %53ko desadostasunak zeuden diabetikoen artean, eta 2014an %3,5ean gaude.

Dena den, oraindik lan haundia dugu egiteko, batez ere pazienteen heziketa eta inplikazio maila gehitzen. Horrek ekarriko baitu, luzarora diabetesaren konplikazioak gutxitzea eta bizi-kalitatea hobetzea.

Non inplementatu da programa?

Oraingoz Aragoiko Alcañizgo eskualdean, baina urtea bukatu aurretik Aragoi osora zabalduko da. Nahiko zaila izan da lehen osasun mailan erabiltzen den historia kliniko informatikoan integratzea.

Beste erkidego batzuek ere agertu dute interesa; oraingoz Andaluziak eta Gaztela-Mantxak nik dakidanez.

Gluzemia-tiren inguruan dagoen aldakortasuna eta erabilera murriztea izan da helburuetako bat

Zer esan nahi du sari honek zuretzat?

Profesionalki asko betetzen nau, hainbeste urtetako lana baliagarria dela ikusteak eta, gainera, beste erkidego batzuetara zabaltzeko Osasun ministeritzak jarri duen interesa ikusteak.

Pertsonalki ere zoragarriak izan ziren saria jasotzeko familiarekin Madrilen pasatu nituen egunak.

OSO INPORTANTEA DA PAZIENTEEN HEZIKETA ETA INPLIKAZIO MAILA HANDITZEA, HORREK EKARRIKO DUELAKO DIABETESAREN KONPLIKAZIOAK GUTXITZEA ETA BIZI-KALITATEA HOBETZEA

DIZIPLINA EZBERDINETAKO PROFESIONALEK (ENDOKRINOAK, FAMILIA MEDIKUAK, PEDIATRAK. GINEKOLOGOAK, ERIZAINAK, INFORMATIKARIAK...) PARTE HARTU DUTE AZTERLANEAN ARANTZAZUREN ZUZENDARITZAPEAN

BURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

12-18 urteko gazteentzako udalekuak antolatu ditu Oinaztu aisialdi elkarteak

» 9 eguneko udaleku itxia izango da, Elosuko apaiz-etxe zaharrean, uztailaren 17tik 25era

Oinaztu taldeko kideak.

12 eta 18 urte arteko gazteek aisialdiko aukera berria izango dute aurtengo udan, beraiei zuzendutako udalekuak antolatu baititu 'Oinaztu' aisialdi elkarteak. Oñatin 10 urte arteko neskamutikoentzako udaleku irekiak antolatzen dira, baina hortik gorakonetzako eskaintza askoz urriagoa da, eta hutsune hori betetzera dator Oinazturen eskaintza.

Bederatzi eguneko egonaldia izango da, uztailaren 17tik 25era, Beragarako Elosu auzoko apaiz-etxe zaharrean. "Oso leku aproposa da era honetako udalekuak antolatzeko" azaldu digute Oinaztukoek; "baserri giroan dago, naturaz inguratuta, oso leku lasaia da, pilotalekua ere bertan dauka, eta aukera asko ematen ditu aktibitate ezberdinak antolatzeko".

Udaleku itxia izango da; hau da, gazteak bertan egongo dira gau eta egun, Oinaztui-ko begiraleen ardurapean. Egun horietan zehar hainbat aktibitate (ginkanak, ur jolasak, mendi irteerak, jolas kooperatiboak, gaubela misteriotsuak...) egingo dituzte, euskal mitologiako pertsonaiak (Mari, Tartalo, Lamiak, Galtxagorrriak...) abiapuntu hartuta. Artisau tailer ezberdinak ere antolatuko dituzte: ukendu eta xaboi tailerra, estanpazioa... "Dena den, gazteekin beraiekin adostu eta moldatuko ditugu egun bakoitzeko aktibitateak" argitu nahi dute Oinaztuko kideek.

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Maiatzaren 25era arte dago zabalik izen-emate epea, Gaztelekuan. Plaza mugatuak dira (50 lagun) eta izen-emate ordena errespetatuko da.

Aste osoko egonaldiak 180€ balio du (aseguroa eta mantenu osoa barne). Oinaztu elkarteak Udaleko Gazteria eta Kultura sailaren laguntza du udalekua antolatzeko, eta horri esker jarri ahal izan du kuota merkeagoa. Informazio zehatzagoa oinaztuaisialdielkartea@gmail.com helbidean.

Oinaztuko kideak gogotsu daude udalekuak antolatu eta bizitzeko, eta animatu egin nahi dituzte herriko gazteak parte hartzera, "lagun berriak egin, elkar ezagutu eta primeran pasatuko dugu".

OINAZTU
aisialdi elkartea

Herriko zazpi gazteren artean sortu dute Oinaztu aisialdi elkartea. Esperientzia zabala dute gazte udalekuetan (Oñatin, Donostian, Bernedon, Abaigarren...). Udalekuak antolatzeaz gain, irailetik aurrera ere gazteei zuzendutako ekintzak antolatzen jarraituko dute,

> **Elosuko apaiz etxea.** Irudiotan, aterpetxeak dituen bi logeletako bat eta egonlekua.

Logela



Egongela

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK
• Era guztietako garbiketak
• Jabegoen eta elkarteen administrazioa
• Konponketa orokorrak
GAK
653 70 45 47
Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

ehbildu
www.ehbildu.eus
@EHBilduOñati
Oñatiko EH Bildu
onati@ehbildu.eus
ereindako hazixa loratuz
OÑATIARROK
garaile!
Mikel Illain - Itati Etxeberria - Borja Moiua - Nerea Zubia - Kepa Zelaia - Ana Martin - Rafael Kortaharria
Leire Zumalde - Gier Irizar - Susana Altuna - Aitor Orueta - Lurdes Arregi - Gati Ibarzabal - Aitziber Legorburu
Rafael Erostegi - Esther Moiua Iñaki Alastui - Maider Usandizaga - Jose Antonio Amundarain - Izaskun Urteaga

460 erabiltzaile ditu Gomiztegiko pistak

Gomiztegiko pistako giltza aldatu egin dute

Bazkideek Cortabarria gestorian eska dezakete giltza berria

Ondoko argazkiak erakusten duen moduan, aldatu egin dute Gomiztegiko pistako giltza. Orain arteko sistema mekanikoaren ordez giltza digitala jarri dute.

Sistema berriarekin, 'nuo' irakurgailura gerturatu behar da giltza, eta zuzena baldin bada, soinu bat entzungo dugu, argi berdea piztuko da irakurgailuan, eta pibotea jeitsiko da.



Giltza sistema berria goian, eta zaharra eskuman. Ekainaren 8ra arte sistema biak egongo dira funtzionamenduan. Hortik aurrera berria bakarrik.

EKAINERARTE SISTEMA BIAK MARTXAN

Apirilaren 15ean jarri zen martxan giltza berria, eta ekainaren 8ra arte sistema biak egongo dira funtzionamenduan, baina ekainetik aurrera giltza digitala bakarrik erabili ahal izango da.

Beraz, pistako bazkide-erabiltzaileek giltza berria eskuratu behar dute ekaina baino lehen. Cortabarria Gestorian (Kale Barria, 42) eskatu behar dute.

Edozein herritar egin daiteke Gomiztegiko pistako bazkide, sarrerako kuota (180€) eta urtekoa (12,02€) ordainduta. Interesatuek Cortabarria gestorian egin behar dute eskaera.

> Edozein herritarrek eskura dezake Gomiztegiko pistako giltza, dagokion kuota ordainduta. Interesatuek Cortabarria gestorian eskatu behar dute

> ELKARRIZKETA



Mikel Bermejo
Gomiztegiko Juntako idazkaria

Zer dela eta erabaki duzue giltza sistema aldatzea?

Pistaren erabilera pittin bat kontrolatzearren. Erabilera desegoki batzuk egon dira azkenaldian (abiadura handian dabilen jendea...) eta ezbehar batzuk gertatu dira. Gainera, giltzaren kopia gehiegi eginda zueden, eta horrek kezka eragin du.

Helburua ez da erabilera murriztea, edozeinek eskuratu ahal izango baitu giltza, baina bai pittin bat kontrolatzea eta, batez ere, errespetuz ibiltzea, kontuan hartuz artzainek, ardiek eta oinezkoek dutela beti lehentasuna.

Giltza berria digitala da, ezingo da kopiarik egin, eta erabilerak erregistratuta geratuko dira. Gainera, lehen zegoen barrerak arazo ugari eman digu, eta orain pibote sistema jarri dugu, hobea delakoan.

Zenbat erabiltzaile zarete? Nork eskura dezake giltza?

460 bat erabiltzaile gara gaur egun. Giltza eskuratu nahi duenak Cortabarria gestorian eska dezake. Sarrerako kuota 180€-koa da, eta urterokoa 12,02€.

Pista fraideena da (60ko hamarkadan zabaldu zuten), eta guk erabilera baimena daukagu 1983az geroztik. Mantenimenduaz arduratzen gara. Geure kontura egin ditugu aparkalekua, asfaltatze lanak, apartaderoak, kanadiar pasoak....

BATUAK S.A.
MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA
Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

ATE IREKIAK
Maiatzaren 23an 11:00etan
MGEP
Robotaren hari gabeko komunikazioa, ordenagailu
Robota diseinatzen dute
Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte
Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoa
Robotaren muntaia eta mantentzea arduratzen dira
Lanerako Gertu!
Jakinarazi etorriko zarela!
943 71 21 91

Musikarekin
hasi, hezi eta bizi...
- 4 urtetik aurrera hezkuntza musikala
- Kalitatezko musika heziketa
- Musika taldean egiteko aukera
- Kontzertuak, emanaldiak...
- Hurrengo ikasturtean:
DULTZAINA
Berria
Matrikula zabalik maiatzaren 18tik 29ra
JOSE DE AZPIAZU
MUSIKA ESKOLA
J. Molua Kalea 26
20560 Oñati
idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com
www.jazpiazumusikaeskola.com
Tel: 943783174
17:00 - 20:00
astelehenetik-ostiralera

KALEAK GARBI MANTENTZEA DENON ARDURA DELAKO

Kalean hondakinak gaika sailkatuz birziklapena handituko dugu

Hondakinen kudeaketarako bulegotik azaldu digutenez, azkenaldian erabilera desegokiak antzeman dituzte kaleko zakarrontzietan, etxeko hondakinak bertan utziz, edota hondakinak gaizki sailkatuta botaz. Beraz, dei egiten zaigu herritarroi arduraz joka dezagun, denon ardura delako kaleak garbi mantentzea.

ORDUTEGI BERRIA

Kale Zaharreko 14an dagoen hondakinen kudeaketarako informazio bulegoak aldaketa txiki bat egin du ordutegian. Hemendik aurrera arratsaldez egun batean bakarrik zabalduko dute, asteazkenetan. Beraz, hauxe da ordutegi berria: **Astelehenetik ostiralera egunero 10:00-14:00, eta asteazken arratsaldetan 15:00-19:00.**

ZUZENKETA

Aurreko zenbakian esan genuen Urrutxuko Garbigunean kimaketak birrintzeko dagoen makina edozein herritarrek erabil dezakeela, baina ez da zuzena. Baimendutako erabiltzaileek erabil dezakete soilik. Bertara podak eraman edo hartzea bai dago herritar guztien eskura.

Hondakinen bilketa zerbitzuaren kostu errealak

> Hiri-hondakinen kudeaketa sistemaren kostuen inguruan komunikabide ezberdinetan argitaratu diren datu eta zenbakien dantzaren aurrean, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen sailak azken lau urteotako datuak eman ditu ezagutzera.

Kontuan hartu behar da herritarrek urtean ordaindu beharreko tasa kalkulatzeko, honako ekuazioa aplikatu behar dela: **bilketa kostuak + tratamendua - birziklatze salmentak.**

	KOSTEA (bilketak+ezarpenak+tratamentua+zeharkakoak)	SARRERAK (salmentak+besteak)	KOSTE NETOA	ZERGADUN BALIOKIDEAK	TASA
2011	5.114.225,23 €	800.074,61 €	4.314.150,62 €	44868	96,15 €
2013	6.135.845,99 €	927.919,40 €	5.207.926,59 €	45046	115,61 €
2014	7.205.899,84 €	1.249.662,98 €	5.956.236,86 €	45446	131,06 €
2015*	6.762.203,25 €	1.243.000,00 €	5.519.203,25 €	45810	120,48 €

(*) Onartutako aurrekontuen aurreikuspena

Bilketa sistema ezberdinen ezarpenak: 2013an Oñati eta Gatzaga; 2014an Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Elgeta; 2015ean Arrasate.

Taulan ikusten den moduan, 2015eko kostuak 2014koak baino txikiagoak dira, eta 2016an berriz jeitsiko dira.

Debagoieneko tasak Gipuzkoako herri askoren azpitik daude, eta **%60ko** birziklatze tasa lortu duen lehen mankomunitatea da, **atez ate** ezarrita duten herriek %80ko bilketa maila lortu dutelarik.

'ELTZIA' HERRIRA

MAIATZAK 13, ASTEAZKENA GAZTELEKUAN, 19:00

Eltzia proiektuaren jatorria, oraina eta etorkizuna ezagutzeko aukera paregabea izango da maiatzaren 13an Gaztelekuan. Herritarren iritzia ezagutu eta Eltzekideekin batera eginiko ibilbidearen inguruko azalpenak emango dira. Horrez gain, eltzekideek landu duten Eltzetik aldizkaria ere aurkeztuko da.

PROIEKTU ARKITEKTONIKOA

Otsaila eta apirila bitartean Eltziaren proiektu arkitektonikoa lantzeko hainbat bilera egin dira, 20 herri mugimenduren parte hartzearekin. Guztien proposamen eta iritziak kontuan hartuz, azken proiektua idatziko du orain Izaskun Legaristi arkitektoak.

KULTUR PROIEKTUAK BISITATZEN

Martxoaren 28an hogeita bi herritar izan ziren Bilboko ZAWP eta Gernikako Musika Lokalak eta Astra kultur proiektuak ezagutzen. Oso aberasgarria izan bertako esperientziak ezagutzea.

ITXAROPENA JOSTEN

Arrakastatsua gertatu zen Gure Esku Dagok antolatutako Joste Eguna. Ekainaren 21eko ekitaldira begira Kale Barriako lokalean eskura daitezke ohialak

Jendetsua, koloretsua eta arrakastatsua gertatu zen Oñatiko Gure Esku Dago ekimenak antolatuta apirilaren 25ean ospatu zen Joste Eguna. Iazko giza katearen ondoren, aurten hautesontzi erraldoiak eraiki nahi ditu Gure Esku Dagok, herritarren borondatearen lekuko diren oihal zatiak josiz. Ekainaren 21ean izango da hori **Bilbon** (San Mames), **Donostian** (Anoeta), **Gasteizen** (Buesa Arena), **Iruñean** (Zezen plaza) eta **Bainonan** (zehazteke). Eta hain justu, motorrak berotzen joateko antolatu zen Oñatiko Joste Eguna.

Dagoeneko ehunka dira beraien oihal zatiak osatu dituzten herritarrak, baina oraindik egin ez dutenek Kale Barriaan zabaldu duen lokalean eskura ditzakete oihalak. Ekainaren 21ean hiriburuetan antolatuko diren jaialdietarako sarrerak (10€ helduak, 5€ haurrak) eta kamisetak ere bertan eskura daitezke. Adi ibili, plazak mugatuak izango dira eta. (*www.gureeskudago.eus*)

Ehunka herritarrek atera zituzten oihalak plazara erabakitzeko eskubidearen alde

EH Bildurentzako botoa eskatu dute hainbat gaztek

Maiatzaren 24ko hauteskundeetan EH Bilduren aldeko botoa eskatu dute herriko hainbat gaztek. Euskara, kultur sorkuntza, gaztetxea, emanzipaziorako laguntzak, lehen lana lortzeko programak... Gazteen arazo eta beharrei erantzuteko urrats asko eman direla uste dute, eta horregatik babes osoa ematen diete EH Bildun aurkezten diren gazteei.

MAPFRE
Oñati
Portu kale, 5
20560 Oñati
Tel.: 943 78 12 66
Faxa: 943 78 07 66

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak
• Administrazioa • Hazlendarekin
• Informazioa • Trafikorekin
• Salmenta • Herentziak, eta abar
Kale Berria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

OÑATIARRAK MUNDUAN eta MUNDUA OÑATIN

Istanbulen bizi da Ilargi 2009ko irailaz geroztik. Master bat egitera joan zen, eta han zegoela Cervantes Institutoan lanean hasi zen turkiarrei gaztelera irakasten. Ordutik, eskoletan, unibertsitatean eta enpresetan dihardu irakasle. Bere bikotekidea turkiarra da.

Europako hiririk populatuena (14,1 milioi) da Istanbul. Zarata handia eta trafiko izugarria egoten da, baina hiri handia izateak bere abantailak ere ba omen ditu: lan aukera handia dago, eta zerbitzu aldetik oso aberatsa da.

Istanbul oso hiri modernoa da, mendebaldeko gehienak (Izmir, Ankara...) bezala. Hiri txikiagoetan aldiz, bizimodu tradizionalarekin jarraitzen dute, eta emakumearen zereginak oso finkatuta daude.

Turistikoki oso erakargarria da Turkia. Istanbulen bertan historikoki oso interesgarriak diren leku asko daude. Hortik aparte Kapadozia, Egeo Itsasoa, eta Meditarranioko kostak gomendatzen ditu Ilargik. Mendia gustuko dutenentzat Kurdistan ingurua, ekialdean.

Siria, Irak, Iran, Armenia... mugakide izanik, tentsio politikoa nabaria omen da. Batez ere Kurdistan, Armenia eta Siriarekin. Gaur egun milaka errefuxiatu siriar daude Istanbuleko kaleetan.

Momentuz Turkian gelditzeko asmoa du Ilargik, baina uda partean hegoaldeko Antalya hirira bizitzera joango da lasaitasun gehiagoren bila.

Izena: Ilargi Garcia
Adina: 29 urte
Turkian bizi da

Ilargi Garcia, Istanbulen.

Izena: Zeinabu Hedi
Adina: 30 urte
Mendebaldeko saharara

Zeinabu Saharako melfa jantzi tradizionala soinean duela

Saharara bada ere, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetan jaio zen Zeinabu eta orain dela bi urte iritsi zen Oñatira, bizimodu hobe baten bila. "Basamortuko bizitza oso gogorra da". Aurretik Valentzian egon zen urtebetez.

Senarra eta 18 hilabeteko Sara alabarekin bizi da Oñatin. Beste semea, Seida (5 urte) Tindufen dago amamarekin. Orain dela gutxi, Mohamed anaia ere batu zaio Oñatira.

Hemen oso gustura daudela aitortu digu. "Herri oso polita da, oso lasaia, eta jendea oso atsegina eta ona da. Eskerrak eman nahi dizkiegu oñatiar guztiei". Klima, baina, ez omen du hain gustuko; "hemengo hezetasunak asma arazoak eragiten dizkit".

Hori baino okerragoa da, hala ere, lanik eza. Ez dute lanik aurkitzen, ez berak, ezta senarrak ere. Jaurlaritzak, Udalak eta elikagaien bankuak ematen dien laguntzari esker bizi dira. Oso eskertuta dago, baina nahiago luke lana balu; "denbora gehiegi pasatzen dugu etxean, edo kalean, eta hori ez da ona". Horregatik, ez daki luzaroan geratuko ote diren bertan.

Duela hilabete Tindufera joateko aukera izan zuen senideak ikustera. Herrikideak oso nekatuta ikusten ditu kanpamenduetan. Beraien herrian bizi nahi dute. Zeinabuk ere amesten du Mendebaldeko Sahara askean bizitzeko aukerarekin.

ANALISIA

Saharar herria egoera kritikoan

Egoera kritikoan gaude. Berrogei urte daramatzagu errefuxiatu kanpamenduetan, bizi-baldintza oso gogorretan, eta bestalde, Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako egoera itogarria da. Gure eskubideak txikituta daude; atxloketak eta torturak eguneroko ogia dira. Horren aurrean, eta Nazio Batuen Erakundeak egoera bideratzeko ezer egiten ez duela ikusita, herritar asko berriz ere gerran sartzeko deia egin diote Fronte Polisarioari".

Hassanna Aalia

Atxiloketak eta torturak eguneroko ogia dira lurralde okupatuetan

Saharako egungo errealitatearen ikusputua

Hassanna Aalia aktibista saharar gazteak egin zituen adierazpenok 'Sahara, borroka garaia' izenburupean Elkar Hezi ikastetxeko ikasleek antolatu zuten hitzaldian.

Zirrara eragiteko modukoak izan ziren Hassannaren kontakizuna eta erakutsitako irudiak. Saharar herria genozidio baten biktima dela salatu zuen, Pablo Ruz epaileak Marokoko 11 goi kargudun militarren aurka ireki duen prozesuak berresten duen moduan. Eta horretarako oso lagungarria gertatu da Euskal Herriko hiru erakunderen (Hegoa, Aranzadi eta EHU) lanari esker Mendebaldeko Saharan aurkitutako hobi komuna.

Hassannak adierazi zuenez, 600dik gora pertsona daude desagertuta (azken hamar urteotan 9); "ziurrenera hobi komunetan egongo dira. Horietako batzuk, gainera, Espainiaren okupazioaren garaikoak dira".

Hassannak gogorarazi zuen Mendebaldeko Sahara fisikoki zatituta dagoela iparraldetik hegoalderaino (ikus irudia), Marokok jasotako 2.500 km.-ko harresi militar baten bidez, eta pertsonen kontrako minez inguratuta.

Marokoko gartzeletan 25 urtetik gora daramaten preso politikoak daude, bizi baldintza oso gogorretan. Beraien senideek milaka kilometro egin behar dituzte bisitatu ahal izateko. Eta giza eskubideak modu baketsuan aldarrikatzen dituzten herritarrak eta hauen senideak atxilotu eta torturatu egiten dituzte. "Giza eskubideak erabat txikituta daude lurralde okupatuan".

Goian, torturatutako saharraren irudiak. Behean saharar presoak pilatuta Marokoko gartzeletan

Gainera, Marokoko gobernua saharar nortasuna desagerrarazteko ahaleginean ari da, beraien hizkuntza (Hassania) eta saharar kulturako ikur guztiak debekatuz, eskoletatik hasita. Bienbitartean Marokok Saharako baliabide naturalen (arrantza, fosfatoa...) ustiaketa basatia egiten jarraitzen du, Europa eta EEBBetako multinazionalekin dituen itun komertzialen bidez

> Mapak erakusten duen moduan, harresi militar batek banatzen du Marokok okupatutako lurraldea eta Fronte Polisarioaren esku dagoena.

ERREFERENDUMAREN ZAIN

Afrikan deskolonizatzeko geratzen den azken lurraldea da Sahara. Ehun urteko kolonizazioaren ondoren, Espainiak Maroko eta Mauritaniaren esku zatitu zuen lurraldea 1976an, nazioarteko legedia urratuz. Gero, Mauritaniak atzera eign zuen eta Marokok hartu zuen menpean lurralde ia osoa.

1990ean Nazio Batuen Erakundeak bultzatutako bake ituna sinatu zuten Marokok eta Fronte Polisarioak. Saharar herriaren autodeterminaziorako eskubidea jasotzen zuen bake planak, eta 1992rako ezartzen erreferenduma egiteko data. Errolda bat ere egin zen, baina errreferenduma ezin izan da egin, Marokok ez dituelako ebazpenak bete nahi, eta Espainia edo Frantzia bezalako estatuek ematen dioten baldintza gabeko laguntzagatik.

Gaur egun Saharako lurralde okupatuetan 275.000 pertsona inguru bizi dira, baina gehienak, bi herenak-edo, Marokoko kolonoak, militarrak (100.000tik gora) edo poliziak dira. Beste 200.000 saharar erbestean bizi dira; gehienak Polisaio fronteak kudeatzen dituen Tindufeko errefuxiatu eremuetan.

Kontzeju Gipuzkoa

ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala
ZUZENDARIA: Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA: Aratz Losada
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza eta Udal Euskaltegia
INPRIMATEGIA: Gertu
Tirada: 5.500 ale
Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea: publi@onati.eus
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkia: Natxo Santos

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Jarrai hasitako bideari

Jose Antonio Amundarain eta Pedro Sologaiztoa (Duintasuna Taldea)

Orain lau urte aldaketa políticko haundia gertatu zen gure herrian eta denboraren joanean garbi geratu da galtzaileen aldetik (PNVren aldetik) iragarritako hondamendia ez dela gauzatu,alderantziz baizik,herrira irekia eta herritarrekin batera hamaika ekintza aurrera atera diren lau urte oparoak izan dira Bilduk Oñatiko herriari eman dizkionak.

PNV agintean zegoen garaian sortu zen orain Duintasuna geran taldea eta gure helburua jubilatu eta pentsionisten arazoei aurre egitea izanik,eskaera luzatu genion orduko Alkate Lurdes Idoiagari Gizarte Zerbitzuen batzordean parte hartu nahi genuela esanez eta ezezko borobila jaso genuen Alkate anderearen aldetik.

Bainan 2011ko hauteskudetan, emaitzak goitik behera aldatu ziren eta Bildu alderdiak Mikel Biain Alkate berria buru zuela haize freskoa ekarri zuen Oñatiko Udaletxera eta ateak iriki zizkiguten herritar guztioi, nahi dugun batzordetan parte hartu ahal izateko

Eta partehartze horri esker jabetu gara ze aldaketa eman den Gizarte Zerbitzuen arloan PNVren aginte denbora haietatik gaur arte Bilduk egin duen lanaren emaitzetara.

Lehen Gizarte arloan PNVk ez zeuzkan hiru atal berri sortu ditu orain Bilduk : Umeentzako Programa Terapeutikoa,Belaunaldi arteko Proiektuak eta Gizarte Zerbitzua indartzeko langile bat gehiagoren plaza berria.

Aldi berean azpimarratu beharra dago, garai hauetan orokorrean ekonomía lehen baino ahulagoa izan eta zailtasun haundiak eduki arren, Gizarte Zerbitzutik kudeatzen diren eguneko zentroa, desbabestuentzako laguntzak, garapen bideko herriei ematen zaiena eta abar, porzentaietan, %16tik gorako igoera izan dutela Bilduren eskutik.

Ekintza hauek adierazten dute herrian dauden Gizarte arazoei Bilduk ematen dion garrantzia

Hala ere egoera soziala ez da ona, danok daukagu inguruan estuasun eta larritasun latza pasatzen ari den norbait, izan familikoa edo bizilaguna,laguna edo ingurukoa eta ze esanik ez emigrantea baldin bada.

Zenbat emazte alargun geratzen ote da hileko gastuei buelta eman ezinda eta zenbat jubilatu edo pentsionista ote daude egoera berdinean. Eta zer esanik ez lanik gabe dagoena berriz.

Diru sarrera eskaxa dutelako bizitza duin bat egiteko arazoak dituzten pertsonak,gizon eta emakume,badira gure herrian eta gizarteak erantzun beharra

Gora Errepublika

Joxe Ruiz

Duela zenbait urtetik hona, apirilaren 14an Errepublikaren bandera jarri ohi dugu lagun batzuen artean Foruen enparantzako kioskoan, gure historia hurbilekoan, baita Euskadikoan ere, gure ustez garrantzi handikoa izan zen gertakari historiko bat gogoratu eta ospatzeko.

Modu horretan, memoria aldarrikatu, oraindik ere bide bazterretan desagertutako pertsona asko daudela gogoratu, eta Frankismoaren biktima hauekiko Justizia eta Erreparazioa esijitzen dugu. Eta bide batez, gaur egun inposatutako eta erreferendumik gabe berritutako monarkia salatzeko ere egiten dugu.

Gaur egungo Euskadi anitz honetan jatorri, sinesmen eta pentsakera ezberdineko pertsonak bizi gara, eta normala den moduan, badago jendea Errepublikarekin lotutako guztia arrotza egiten zaiona, eta herri honekin loturarik ez daukala uste duena. Guk errespetatzen ditugu, eta geurekiko ere errespetu berbera eskatzen dugu.

Hala ere, mindu eta haserrearazi egiten gaitu, zenbaitzuk, Adierazpen Askatasun eskubidea gaizki ulertuz, "zentsuratzaile asegaitz" bihurtzea, eta spray eta rotulagailuz armatuta, beraien ideiekin? bat ez datorren guztia zikintzea, inork eman ez dien legitimitatea beraientzat hartuz.

Bada ordua, spray eta rotulagailuekin jolas egiteari utzi, eta zuen ideiak, baldin badauzkazue, defendatzen hasteko.

dauka egoera horren aurrean.

Arazo físiko eta mentalak dituzten pertsonak zahar eta gazte ere badira eta haueí ere erantzun beharrean gaude zeren elkartasunean oinarritutako jendartea nahi badugu diruz eta baliabidez ondo hornitutako Gizarte Zerbitzua edo Ongizate Zerbitzua behar dugu.

Beraz, Duintasunaren izenean jarrai hasitako bideari badago zer egina eta.

San Martingo etxea erabiltzeko eskaintza

Guren Zumalde Auzmendi eta etxe okupatuko beste kideak

San Martingo etxea herritar askoren izerdiarekin konpondu zen 2008an. Guk gutxiegi erabiltzen dugu, eta etxe hutsen arazoa oso larria da. Horregatik, eraikina erabiltzeko prest azaltzen bada norbait, gustura emango diogu.

Eskaera bat baino gehiago badira, denon artean erabakiko dugu nori edo nortzuei eman. Irizpide zentzuzkoekin: lanpostuak sortuko diren edo ez, biziitzeko den edo ez, ideia parte-hartzailea den edo ez, erabilera-maila...

Edozertarako: *sanmartingoetxeokupatua@gmail.com*

Ekainak 7, Lasterbidean lasterketa, Berriozar

Jose Mari Zugasti

Ekainaren 7an hirugarrenez antolatuko dugu LASTERBIDEAN nazio elkartasun lasterketa.Nafarroako Berriozar herrian egingo dugu.

Kirolean oinarritutako elkartasun herri ekimena da lasterbidean lasterketa.Euskal errepresaliatu politikoen eta beraien gertukoen eskubideen aldeko elkartasun adierazpen zintzoa egin nahietik sortu zen orain hiru urte. Izan ere, ehunka dira beren etxetik urrun bizi diren euskal herritarrak: espetxean, ihesean edota deserrian. Egun, sinestezina badirudi ere, beraien eta beren senideen eskubideak urratuak izaten jarraitzen dute. Beraz, egoera honetan geldirik ezin garela egon adierazteaz gain, LASTERBIDEANetik izerdia botaz korri egiten jarraituko dugula ozen adierazi nahi dugu.

Etxetik ehunka kilometrotara dauden euskal herritarrak Euskal Herrira ekartzeko dagoen herri gogo koloretsu eta bizia ehunka korrikalarik irudikatuko dugu Berriozarreko kale ta aldapetan. Errepresaliatuek ere parte hartuko dutelako beren lagun eta senideei Berriozarrera joateko gonbitea eginez edo beren eskulanak sari gisa emanez.

Egun osoko egitaraua izanen da. Goizean bi motatako lasterketekin hasi eta arratsalde partera arte zer ikusi eta non parte hartu izango dute bertaratuko direnek: lasterketa laburra eta luzea, sari banaketa, ekitaldia, kale animazioa, herri bazkaria...

Beraz, kirolaren bidez eta izerdia botaz elkartasuna eman nahi duen oñatiar orori dei egin nahi diogu. Elkartasunaren bidez tarteko helmuga gainditu eta 25 urteko ibilbide luze honen amaierako marrara beso zabalik iritsi nahi dugu.... Izena www.herrikrossa.com eman behar da. ANIMATU ETA LASTERBIDEAN, LASTER ETXEAN!

HILEKO IRUDIA

Argazkia: Natxo Santos

Sancti Spiritus Unibertsitatearen bestelako ikusputua.

MEDITERRANEOA

Luis Guridi



Bi asteren barruan mila pertsonatik gora hil dira hotzez eta ittota Mediterraneoa gurutzatzen ari zirela Afrikatik Europarako bidean. Ez dira lehenengoak izan baina oraingoan Europako Batasunak esan du zerbait eta neurriak proposatu ere: afrikar kostaldetik Europara pertsona horiek garraiatzen dituzten mafiak dute errua; beraz abiatu baino lehen prest dauden itsasontziak bonbardatu beharra dago. Badirudi horrekin konponduko dela arazoa. Nola izan daiteke hain zinikoa eta arduragabea?

Afrikatik jendea ihes egiten ari da, eta besteak beste, bi arrazoi nagusi aipa daitezke: 400 urteko kolonizazioak utzitako ondorioak eta azken bi urte hauetan Magreb eta Ekialde Hurbilean ematen ari den krisi humanitarioa. Europar Batasunak ez du zer ikusirik honekin? Jakina baietz.

Afrika Europako kolonia izan da luzaroan, europar inperioak mendeetan zehar, esklabutza erabiliz, handik atera zituzten lehengai eta baliabide ugari bere garapena ahalbideratzeko bertako gizarteak eta kulturak desegituratu eta suntsituz. Afrikako mapa politikoa sortu zuten erregela eta kartaboiez kontuan hartu gabe bertan zeuden herriak, gizarteak, etniak, eta kulturak. XX. mendeko erdialdean eman zen deskolonizazioak gauzak okertu besterik ez zuen egin. Gaur egun munduko giza garapen txikiena duten 50 herrialdeen arten 39 afrikarrak dira (IDH 2014).

Bigarren arrazoia, gaurkoagoa da eta Magreb-en eta Ekialde Hurbilean azken lau urte hauetan ematen ari den krisi humanitarioarekin zerikusia du. Siriako gatazkan 2011 ondoren ia 200 mila pertsona hil dira, eta 2 milioi errefuxiatu atera dira inguruetako herrialdetara. Libian, berriz, ez dago hildakoen edota desagertuen datu fidagarririk baina 400 mila pertsonatik gora desplazatu dira beraien sorlekutik. Yemenen laster beste horrelakorik gerta daiteke.

Ameriketako Estatu Batuak eta Europar Batasunak, beraien interes ekonomikoak eta geoestrategikoak defendatu nahian, arduragabekeriaz jokatuz, krisi egoera iraunkorrean dagoen gune batean, chiien eta sunien arteko tentsio historikoak sustatu dituzte sekulako gatazka orokorra sortuz, hortxe bertan, Mediterraneoaren bestaldean, oso gertu. Txalupak eta lurraldeak bonbardatuz ez dira gauzak konponduko, beste politika bat egin beharko dute nazioarte mailan, Afrikaren garapenaren inguruan eta etorkinei dagokienez.

KOMIKI TIRA

ONGI ETORRI INFERNURA

Joseba Molinero

Apirillaren 26a, 10:05, Buetraitz eta Akaitz artian, kresterixan... harri bat, labainkada bat, apoio txar bat... ez dakit zer, baiña konturatu orduko hamabi metroko kaida librian, ezin gorputza geratuta, harri, belar eta ertz danak joaz... Akaitzeko puntan katalejuaz ikusten eta flipaitten; eskerrik asko, Kizkitza.

Halako baten geratu, gora begittu eta? Gorputz dana odoletan, maillota zer danik be ez... Zaratak entzuten hasi nintzen, Galfa, Lasku, Kanu, diarka. Nereana aillau eta Kanuren hitzak: bizirik dau... eta buruan ez dako golperik. Milagro.

Handik aurrera pasau nebenak kontaittera nator. Ez bazan zureatik, nola aillau ni nunbaittera. Kanuren eta Kizkitzaren material on eta berua jantzi eta polikipoliki goruntz zulotik... ze miñak... bi pausu, geratu, ura edan, beste bi pausu, eta halako baten Buetraitzeko buzoira. Handik besuetatik helduta zelabait, Gurutze Gorriko todoterrenoraiño. Eskerrak zueiri. Zuasti, Estitxu, Egoitz, Olatz, Txino... Aloñatik Lizartzara bajau eta han anbulantzia zain. Oscar eta Andrea, txoferra eta erizaiña. Ze lana zuria, Andrea, Arrasateraiño kurak egitten, konstantiak hartzen eta morala emuten, hipotermia puntuaz...

Zorionez, kontaitteko moduan nau eta eskerrak danoiri. Antolatzailliak euki dozuen tratua; badakit, Iban, ze gaizki pasau zeben, ez zan nire intentziñua.

Endika Gartzia korrikalarixari ze esanik ez, bixok goiazen batera, aspaldittik gara lagunak, gaiñera; berak ikusi eben dana, karrera dana pasau ebela nitaz akordaitten, han geratu bihar zala neri lagunketan, aste dana mezuak idazten; animo, Endika. Eta pasadia izan zana, ze apoiua emun nostain karrerako korrikalarixak. Eskuak emun lagunketako, animuak... zer moduz? Benetan eskerrak.

Post-data: hemendik antolatzaille eta herrixari ohartxo bat: aurten 106 dorsala ez da metara aillau, baiñe hurrengo urtian aillauko dan esperantziaz besarkada bat danoiri, Deabruari be bai. Ez naiz hemendik bizi, baiña bizitzaren zati bat horko mendixetan dakot aspaldittik.

Oñati aurrerakoia garatzeko taldea.

Pertsonak ditugu lehentasun, **inposaketarik gabe, gertutasunez** lanean

bestelako gipuzkoa

eaj pnv

OÑATI HAZI ARAZI

Miren Elgarresta	Xabier Mugarza
Lourdes Idoiaga	Nekane Maiztegi
Amaia Erostarbe	Angel mari Biain
Jon Kepa Gerrikagoitia	Luis Anduaga
Richar Fernandez	Margarita Mejia
Marijo Etxegoien	Isidro Palacin
Javi Balzategi	Lourdes Urtaza
Olatz Agirre	Mikel Gartzia
Aitor Urzelai	Ainhoa Irizar
Kontxi Egaña	Aitor Arregi

Argazkiak: Borja Abarrategi

KOLABORAZIOA

Leintz-Gatzagako Gatzmuseoa, Arrikrutz-Oñatiko kobak eta Zeraingo Aizpeako minak, Aizkorri mendilerroko ondare geologikoaren erakuslehio

Testua: Arrikrutz

Maiatzaren 7an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostian duen egoitzan GEOAIZKORRI proiektu turistiko berriaren aurkezpena egingo da. Proiektu honetan Debagoiena eta Goierriko hiru udalerrik parten hartzen dute, Leintz-Gatzagak, Oñatik eta Zerainek. Elkarlan honen helburua, hiru udalerri hauen eta Aizkorri mendilerroaren ondare geologiko bereizgarria oinarri hartuta Gipuzkoa barnealderako korredore geoturistiko erakargarria sortzea da, natura, kultura eta gastronomia uztartuz.

Korredore geoturistiko berri honen ardatza hiru baliabidek osatzen dute:

• **Gatzaren Ekomuseoa** (Leintz-Gatzaga): 2001ean martxan jarria, Gipuzkoan gaur egun ustiatzen den gatz-ur gune bakarra da eta Iberiar Penintsula osoan gatz-produkziorako sua erabiltzen den bakarrenetarikoa.

• **Aizpeako meategiak** (Zerain): 2008.urtean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Monumentu Multzo izendatua, mendeetan zehar Gipuzkoako burdinaren ustiapen eta meatzarien bizimoduaren erakuslehio paregabea dugu.

• **Arrikrutz-Oñatiko kobak:** Gipuzkoan aurki daitekeen lurpeko sistema karstikorik zabalenetakoa da eta bisitariei egokituriko kobanatural bakarra. Aipatzekoak dira bertako aurkikuntza paleontologikoak, kobazuloetako lehoi eta hartzen hezurdurak besteak beste.

Egitasmo berri hau aurkezteko asmoz, hilabete osoan zehar bisita eta ekintza bereziak antolatuko dira aipaturiko hiru baliabideetan.

Gipuzkoako barnealderako korridore geoturistiko erakargarria sortzea da helburua, natura, kultura eta gastronomia uztartuz

GEOLOEGUNA

> ESPELEOABENTURA ARRIKRUTZEN

Maiatzaren 10ean Espeleoabentura irteera egingo da Arrikrutz-Oñatiko koban (09:00-13:00) helduentzat (18 urtetik gora). Sarrera: 20€. Bisitariak eraman behar ditu katiuskak, aldtzeko erropa eta jan-edana. Gehienez 20 pertsona. Erreserbak: 943 08 20 00.

ANE MERTZERIA
• Jostako zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.
• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ARKAUZ
ETXE MODEL
Arkauz zure etxea da.
GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950 - 2015 ARRASATE
65 urte

ETXEBIZITZA BERRIAK
OÑATI ERDIAN
Maiatzaren 1 Plaza,
2. zenbakian
3 logeletako
etxebizitza zabalak
Informazioa eta Salmenta:
Larrain S.L.
Tel.: 943 21 33 88
www.moyua.com
grupo MOYUA
Larrain

Herri Arteko txapelketan lau final jokatu ditu Oñatik. 1979an (ezkerreko argazkia), 1980an, 1986an eta 1987an (eskumako irudia).

Herrien Arteko Txapelketa

Oñati-Bidania lehen kanporaketan

Joaneko partiduak: Maiatzaren 8an Zubikoan, 21:30

Azken hamabost urteetan huts egin ondoren, aurten Herrien Arteko txapelketan izango da berriz ere Oñati. Albiste pozgarria inondik ere. Azken bi urteetan Aloña Mendiko Pilota saila egiten ari den lan onaren emaitza. Oñatik letra larriz idatzi zuen bere izena txapelketa honetan 80. hamarkadan, lau final jokatuta. Lau finalak jokatu zituen pilotari bakarrarekin izan gara, Jose Luis Barrenarekin.

Jose Luis Barrenak Oñatiko lau finalak jokatu zituen

A zelako oroitzapenak, ezta?
Bai, oso politak. Lehenengo finala 1979an jokatu genuen Arrasateren aurka, Eibarko Astelehenan. Finalerdian Bergarari irabazi genion. Gogoan dut, Afizionatu mailako partidua jokatzen ari zela, finalera pasatzeko behar beste tanto egin zuenean Oñatik, Julian Doradok kantxara salto egin zuela, pozez, pilotariak besarkatzera, artean partidua amaitu barik. Finalean Arrasatek irabazi zuen 2-1.

Hurrena Azkoitiaren aurka.
Bai, hurrengo urtean, 1980an, Bergaran. Pilotalekua lepo bete zen. Igande goizez ziren finalak eta gogoan dut, anekdota moduan, Infantilen partidua hasi aurretik Azkoitiarren delegatuak, 'Belarri'k, pattarra ematen ziela pilotariei, 15 urteko mutikoei, bizigarri moduan. 3-0 galdu genuen.

> "Klubak egin du berea. Orain pilotazaleoi dagokigu frontoira hurbiltzea"

Hurrengo biak 1986 eta 1987an.
Eta biak Donostiaren aurka. Lehenengoa Tolosako Beotibarren. Oñatiko Musika Banda ere bertan zen. Ilusio handia zegoen herrian. Infantiletan irabazi egin zuten Murguzurrek eta Ezpeletak, eta txapela irabazteko aukerarekin iritsi ginen azken partidura. Zoritxarrez, nerbioengatik-edo, ezinean ibili ginen Maiztegi eta biok, eta erraz irabazi ziguten donostiarrek.

Hurrengo urteko finala Zarautzen jokatu zen, eta 3-0 nagusitu zen Donostia. Gure aurka Mikel Unanuek jokatu zuen. Bere azken partidua izan zen Afizionatuetan. Hurrengo urtean profesionaletan egin zuen debuta 19 urterekin.

Urte ederrak izan ziren.
Bai. Pena da ez genuela txapelik irabazi, baina izugarrizko giroa sortzen zen herrian. Pilotalekua bete egiten zen. Gogoan dut presio eta tentsio handia egoten zela. Gehiegitxo Infantil eta Jubenil mailako mutikoentzat. Irabazi beharra zegoen nola edo hala.

Gero gainbehera etorri zen.
Pilotari batzuk kanpora joan ziren ikastera, eta hutsune handia sortu zen. Guk 2000. urtera arte jarraitu genuen. Azkoitian jokatu nuen azken

Duela bi urte finalerdiak jokatu zituen Bidaniak

Aurkari gogorra egokitu zaio Oñatiri. Bidania-Goiatz talde indartsua da. Duela bi urte finalerdiak jokatu zituen eta iaz ere lan txukuna egin zuen.

Kadete mailako partidan Oñatik (Ander Biain eta Markel Garcia) aukerak dituela uste du Sergio Uriarte entrenatzaileak. Gazte mailan oso zaila izango dute oñatiarrek (Mikel Aramendia eta Markel Txintxurreta); beraz, afizionatu mailan egon daiteke gakoa. Bidaniak esperientzia handiko bikotea du, baina gure bikotea (Sergio Uriarte eta Andoni Azkarate) borrokarako gertu irtengo da. Oñatiar pilotazaleen animoak oso inportanteak izango dira. Ea ba zaletuok ez dugun hutsik egiten.

2000. urtean jokatu zuen Oñatik azkenekoz Herrien Arteko Txapelketan

partidua 38 urterekin.

15 urteko etenaren ondoren hor izango da berriro Oñati.
Asko poztu naiz. Azken bi urte hauetan lan ona egiten ari dira Sergio eta direktiba berria, eta pilota giroa sortuz doa poliki poliki.

Ze aholku emango zenieke?
Lasai jokatzeko, ahal den neurrian. Bestalde, txapelketa honetan oso inportatea izaten da tanteoa; beraz, galtzen joanda ere, ez da etsi behar.

Eta pilotazaleei?
Hurbiltzeko pilotalekura. Klubak egin du ahalegina, eta zaleok erantzun egin behar dugu. Urte asko dira Herri Arteko txapelketan parte hartu barik, eta merezi du joateak.

HERRI MAILAKO PILOTA TXAPELKETA

Aloña Mendi eta Txosna Batzordearen eskutik

Aloña Mendiko Pilota sailak eta Txosna Batzordeak herri mailako pilota txapelketa antolatu dute, eta animatu egin nahi dituzte herriko pilotariak, lehengoak eta oraingoak parte hartzera. Pizgarri moduan sari ederra jarri dute, txapelaz gain: Lau t'erdiko finalerako sarrerak lau finalistentzat, eta aurretik bazkaria Donostian. Izena ematen duten bikoteen arabera ekaina-uztailean jokatuko dira kanporaketak, eta irailean finalerdiak eta finala. Oñatiarrek edota bertan bizi direnek bakarrik parte hartu ahal dute, eta bikote bakoitzeko federatu bakarra onartuko da. Maiatzaren 24a baino lehen eman behar da izena (10€/bikoteko) Aloña Mendi eta Arrano tabernetan.

Becerra eta Olazabal azkarrenak Aloñako Igoeran

Walter Becerra (2.09.11) eta Alicia Olazabal (2.43.48) nagusitu ziren Aloñako XI. Igoeran. Becerrarentzat laugarren txapela izan da, eta Olazabalentzat hirugarrena. Abderrahim El Qayed eta Julen Martinezek osatu zuten podiuma gizonetan, eta Ainhoa Lendinez eta Izaskun Zubizarretak emakumezkoetan. Oñatiarrei dagokienez, Axier Alonso (2.11.46) 4. postuan, eta Maite Zabaleta (2.58.41) izan ziren onenak. Guztira 300 bat korrikalarik osatu zuten proba. Zorionak guztiei eta antolatzaileei.

Iñaki Guridi garaile 'Oceanman' proban

Iñaki Guridi Aloña Mendiko igerilariak 'Oceanman' itsas zeharkaldien zirkuitoko lehen proba puntuagarrian parte hartu zuen apirilaren 26an Altean. Itsasoaren egoera arriskutsuaren ondorioz 5.000 metroko zeharkaldia 3.500era murriztu zuten. Bertan 12 herrialdetako 300dik gora igerilarik parte hartu zuten eta Aloña Mendiko igerilaria 3. sailkatu zen, eta lehenengo Master mailan. Horrenbestez urrian Benidorren jokatuko den finalerako txartela lortu du zuzenean.

> BETERANOEN HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

KALAÑATASARAY TXAPELDUN

Bundeswehr-entzat kopa txapelketa

Kalañatasarayk irabazi du beteranoen futbol txapelketa finala 1-0 irabazita **Etxaixat** taldeari, Ion Lasaren golari esker. Kontsolazioko finalean **Albok** nagusitu zitzaion (5-1) **Doollygan's**-i. Kopako finala **Bundeswehr**-ek eraman zuen (3-0) Xaguxar-en aurka. Banakako sariak hauek izan dira: Golegile onena 'Bere' saria: **Iñigo Arregi**; Atezain onena: **Aitor Sanchez**; Kiroltasuna: **Aitor Idigoras**; Jokalari beteranoena: **Kepa Azkue**. Antolakuntzak eskerrak eman nahi dizkie laguntzaile izan diren honako etxeei: Harripe, Ongi, Ona, Izarraitz, Xaguxar, Luis, Iturritxo, Pako, Aker, Portu, Arkupe, Oñati, Arrano, Galicia, Boga, Iturritxo,Bikoitz, Olakua, Garoa, Artxubi, Aldapa, Osi, Lizarralde, Mendizabal, Alzu, Mapfre, Super BM, Urrutxi, Astore, Urrutia Gizonak, Aranburu bitxitegia, Caravanas Oñate, San Migel Koop., Codorniu, Gereta, Oñati Irratia, Aloña Mendi eta Udala.

Golegile onena

Atezain onena

Kiroltasuna

Beteranoena

Natxo Santos

Bost oñatiar Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Sailkapen Faseko bi saio Oñatin jokatuko dira maiatzaren 30ean. Arratsaldekoan Joseba Lasagabaster ariko da bertan.

Oñatiko Bertso Eskolak bost ordezkari (Andoni Goitia, Egoitz Aizpuru, Maider Arregi, Urko Egaña eta Joseba Lasagabaster) izango ditu maiatzaren 9an abian jarriko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. Orain, maiatzean, sailkapen fasea jokatuko da. Guztira 74 bertsolarik parte hartuko dute, bina saiotan kantatuz, eta saio bietan batutako puntuen arabera 30 bertsolari igaroko dira irailetik abendura bitartean jokatuko den txapelketara.

Ilusioz eta txapelketari ekiteko gogoz daude gure ordezkariak. Oñatiko txapelketarako egindako prestaketari jarraipena eman diote, eta sasoi puntu onean iritsiko dira Gipuzkoakora, errimetan aberats eta ideietan oparo.

Helburuetan apal agertzen dira. Saio txukuna egitearekin konforme. Baina bi saio txukun eginez gero, aurrera egiteko aukera ere hortxe egongo da, eta batek daki. Duela lau urte final laurdenetan sartzeko postu bakar batera geratu zen Urko Egaña.

Andoni Goitia, Oñatiko txapelduna, izango da kantatzen lehena, larunbat honetan (maiatzak 9) Astigarragan. Ikusi gainerako saioak taulan. Bertso saioetarako sarrerak egun berean salduko dira aretoan bertan. Informazioa: *www.bertsozale.eus*

OÑATIARREN SAILKAPEN SAIOAK

Andoni Goitia
-Maiaitzak 9, Astigarragako kultur etxean, 11:30
-Maiaitzak 17, Bergarako Zabalotegin, 17:30

Urko Egaña
-Maiatzak 10, Idiazabalgo Guraso Elkartean 17:30
-Maiaitzak 17, Bergarako Zabalotegin, 11:30

Maider Arregi
-Maiatzak 16, Zaldibiako Herri Antzokian, 17:30
-Maiaitzak 30, Zumaiako Aita Marin, 11:30

Egoitz Aizpuru
-Maiatzak 16, Zaldibiako Herri Antzokian, 17:30
-Maiatzak 31, Usurbilgo Sutegi aretoan, 11:30

Joseba Lasagabaster
-Maiatzak 17, Hernaniko Sandiusterrin, 11:30
-Maiatzak 30, Oñatiko Santa Ana aretoan, 17:30

> AGURRAK

JOSEBA LASAGABASTER
Lehengo maisuek guri bertsoa
barrura sartu ziguten
ta bertsoaren ilusioa
ezerk ezingo digu ken
txapelketa hau dela medio
animatu gara aurten
intentzioek eta bertsoek
ea bat egiten duten

ANDONI GOITIA
Lau urtean behin jartzen diogu
gure buruari froga
soka gainean dantzatu asmoz
joaten gara zirkora
txapelketan zer bilatzen dudan
nola heldu eta nora
bertso bakoitzaz gozatzen badut
emaitza ona izango da

MAIDER ARREGI
Puntuaketak, presio pixkat
eta urduritasuna;
bertso on baten ostean txaloz
jasotzen den erantzuna...
Gorroto edo atsegin dugu
txapelketen oiartzuna?
Balantza hortan dantzatzea da
orain tokatzen zaiguna.

URKO EGAÑA
Txapelketa hau prestatu nahian
bide polita izan da,
bertso eskolara astean bitan
edo hirutan joanda.
Maila handiko parte hartzeko
txapelketa bat izanda,
pozik itzuli nahi nuke bueltan
dudan guztia emanda.

EGOITZ AIZPURU
Gai bat jarrita izan gaitezke
Futbolaria, serora,
Elbarritua, guardia zibila,
Tabernaria, biloba,
Irakaslea, erretzailea
Edo Arantza Quiroga.
Trajea nola geratzen zaigun
Egin dezagun aproba.

Minbizia duten haurren aldeko kontzertua antolatu du Musika Eskolak

ANE PIRATAk eta MARKEL IRIZARek dinamizatuko dute saioa. Dantzari, txistulari eta bertsolariek ere parte hartuko dute.

Jose de Azpiazu Musika Eskolak ASPANOGIren (Gipuzkoako haur minbizidunen elkartea) aldeko jaialdi solidarioa antolatu du. Ane Piratak eta Markel Irizarrek gidatu eta dinamizatuko dute jaialdia, eta herriko hainbat taldek parte hartuko dute: Oñatz dantza taldea, txistulari taldea, bertso eskola eta herriko hiru ikastetxeak. Sarrerak 10€ balio du. Maiatzaren 18 eta 20an plazan (19:30-20:30) egongo dira salgai, eta Musika Eskolan ere eskura daitezke aurrez. Bestela, egunean bertan takilan.

MAIATZAK 23, LARUNBATA, ZUBIKOA PILOTALEKUAN, 19:00

Bazkideei zuzendutako kontzertu berezia eskainiko du Ganbara Abesbatzak maiatzaren 9an

Bazkide ez diren herritarrak ere joan daitezke kontzertura, sarrera (8€) ordainduta. Parrokian izango da 13:00etan.

'Egin dezagun kultura elkarrekin' ekimena jarri zuen abian Ganbara Kantu Eskolak orain dela bi urte, finantziazio pribatua lortzeko asmoz. Ganbarako 'laguna' (15€) eta 'bazkide' (50€) figurak sortu zituen, hainbat abantaila eskainiz trukean. Besteak beste, bazkideentzako kontzerturako sarrerak dohainik eskuratzea.

Eta hain justu, maiatzaren 9an eskainiko dute Bazkideen kontzertua. Emanaldi berezia izango da, arrazoi askorengatik. Ganbarak parrokiako organoa lagun duela abestuko du lehen aldiz. Luis Elberdin organu-jole bikaina izango dute lagun. Bestalde, entzuteko ez ezik, ikusteko kontzertua ere izango da, koruan egongo diren abeslari eta musikariak ikusteko aukera egongo baita, aldare aurrean jarriko duten pantailan.

XXI. mendeko musika erllijiosoari eskainitako kontzertua izango da, '*Missa Joanes Paulus II*' (J. Elberdin), '*Ave Maria*' (J. Busto) edo '*Aita Gurea*' (F.Madina) bezalako obrekin.

Bazkide ez direnak ere joan ahal dira kontzertura. Txokolateixan daude salgai kontzerturako sarrerak.

Oñatiri buruzko

JAKINGARRIAK

> Otadui apezpikua eta Kasablanka

Daur abiatzen dugun atal berri honetan Oñatiko historiako gertaera eta pertsonaia nagusiei leku egingo diegu. Hasteko, Kasablankara begira jarri gara. Hain zuzen ere, bertara garamatzan Otadui zuhaiztiari izena nork ematen dion jakin nahian.

LUGO ETA AVILAKO APEZPIKUA

Ez dago informazio askorik, egiari zor, baina jakin badakigu Lorenzo Asensio de Otaduy Avendaño izeneko apezpikuaren omenez jarri ziotela izena arboledari. Kale Barriako 30ean jaio zen Otadui apezpikua. San Migel parrokiako benefizioduna zen eta Alcalá de Henares-eko unibertsitatean egon zen, ikasle eta irakasle bezala. San Justo de Alcalá-ko kanonigoa eta Cuencako magistrala izan zen. 1591n Lugoko apezpiku izendatu zuten, eta ondoren Avilako elizbarrutikoa. Bertan hil zen 1611n. Lugon apaiztegi bat sortu zuen.

Kanpoan bizi arren, Otadui apezpikuak ez zituen sekula ahaztu oñatiarrak, eta lagundu egiten zien Kondearekin zituzten auzietan aurrera jarraitzeko. Horretarako, 8.000 dukat-eko donazioa egin zion Oñatiko Kontzejuari.

PEDRO OCHOA DE OTADUY

Itzal edo izen handiko anai bat ere izan zuen Otadui apezpikuak, Pedro izenekoa. Iñaki Zumaldek (*Historia de Oñate*) dioenez, Erregearen zerbitzura nabigatzen ari zela ekaitz gogor batek harrapatu eta pirata eta kortsarioen esku erori zen. Bertan hil zuten lantzaz, fede katolikoari uko ez egiteagatik 1589an.

KASABLANKA AUZOA

Otadui zuhaiztiak Kasablanka auzunera garamatza, eta honen izenak ere sortzen du jakinmina eta harridura. Nondik ote datorkio izen hori? Iñaki Zumalde historialariak bere idatzietako batean dioenez, XIX. mendearen bigarren erdikoa omen da izena.

Auzune edo etxe multzo hau Goribar auzoaren barruan zegoen, eta garai hartan orma zuriak zituen etxe bat eraiki omen zuten bertan (orduan ez zen ohikoa karea erabiltzea etxeetako fatxadetan). "Casa blanca" deitu omen zioten. Zeresan handia eman zuen, nonbait, herritarren artean eta, poliki poliki, auzune osora zabaldu zen izena.

Etxe honetan jaio zen Otadui apezpikua

Kanpoan bizi arren Otadui apezpikuak ez zituen sekula ahaztu oñatiarrak, eta 8.000 dukat-eko donazioa egin zion Kontzejuari, kondearekin zituzten auzietan aurrera egiteko

Apezpikuaren izena darama Otadui zuhaiztiak

PLANTXAprest
Plantxa zerbitzua
Esther Otxoa-Aizpurua
ZERBITZU AZKARRA ETA EROSOA
Airepa garbia jasotzera joango gara.
All eraban, plantxatuta bueltatuko diogu.
DEITU!
Telefonoa: 662 041 498

Almaraz
Inmobiliari gestioa
Tel.: 679411444
www.almaraz.info
Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat **saldu** edo **alokatu** nahi baduzu, **dei iezaguzu**".

HISTORIA TXATALAK

Noiz sortu zen Oñati?

> Urte askotan pentsatu izan da 1149ko data duen dokumentu bat (Oñatiko Jaurerriaren Oinordekotza Eskritura) zela Oñatiri buruzko lehenengo agiria, baina gaur egun faltsutzat jotzen dute historialariek. Rosa Ayerbek ('Historia de Oñate. Siglos XIV-XIX') liburuan dioenez, Iñigo de Guevara jaunak idatzi omen zuen 1455-1456 aldera. Bere anaia Pedro Velez IV.a seme-alabarik gabe hil zenez, Enrique IV.a erregeak agindutako ondasunen enbargoari aurre egiteko.

Oñatiri buruzko aurreneko dokumentua 1284koa da, eta Oñati Jaurerri (señorío) bezala agertzen da, Gebaratarrei lotuta. Urte hartan Orduña Bizkaian sartu zen, eta lekuko bezala "Juan Velez de Guevara, señor de Oñate" izeneko batek esku hartu zuen. Hortik aurrerako agiri askotan "de Oñate" edo "de Oñati" hitzak "de Guevara"-ren sinonimo bezala agertzen dira, eta beti "Jaun"(señor) bezala. "Konde" titulua XV. mendetik aurrera azaltzen da.

Ayerberen ustez, Gebaratarren familia XIII. mende amaieran lotu zitzaion Oñatiri, San Migel elizaren (12000 urtean azaltzen da dokumentatuta aurreneko aldiz) patrono bihurtu ondoren.

AUZORIK AUZO

Zubillaga

> Jerardo Elortza

Sail berri honi ekiteko, Oñatiko auzoetatik hasiko gara; behetik, hau da, Zubillagatik gorantz. Egia da San Prudentzioko hiru baserri ere (Elorregi haundi, Elorregiko errota eta Aumategi) gure udalerrian sartzen direla, baina horiek, sarritan egin izan den bezala eta erraztu alde, Zubillagakotzat hartuko ditugu.

Leku-izenari dagokionez, samurrena **zubi** berbatik datorrela pentsatzea da, auzoan hainbat erreka eta zubi baitaude, baina filologoak ez dira horretan ados jartzen eta batzuek **zur>zubil** formarekin zerikusia eduki dezakeela uste dute.

Kaletik kanpora dauden auzo oñatiarretan Zubillaga "kaletarrenetakoa" dugula esan daiteke. Hain zuzen ere, gainontzekoak oraintsura arte bereziki baserri-girokoak izan baldin badira, Zubillagak, Erdi Aroaz geroztik, industria-gune garrantzitsua eduki baitu seiehun urte baino gehiagotan: olaren inguruan lehenengo, fanderiarekin hurrengo, eta azken mendeko fabrika pilarekin azkenik.

Jauntxo gebaratarren burdinola ospetsua gerora Zubillagako Forjak izeneko lantegia jarri zuten tokian egon zen bostehun bat urtean. 1980ko hamarkadan eraitsi zuten oraingo industrialdea eraikitzeko, bide batez gure industria-arkeologiaren aztarnarik inportanteenak betiko desgerraraziz. Fanderia, berriz, XVIII. gizaldiaren amaieran jasoarazi zuten Gomendiotarrek Osin urdin aldean, eta, nola edo hala, gaur arte iraun du industria-gune gisa.

Aspalditxotik izan da Zubillaga industrigune garrantzitsua

Zubillagako hainbat etxeren izen zaharrek garbi salatzen digute auzoaren jatorri industriala: Olaburu, Urtzaille (fundidorearen bizilekua), Txipitxaille (mea, minerala txipittu, xehatzen zuenarena) Arotzena edota Errementarikua-k, adibidez. Eta beti eutsi dio auzoak fabrika-kutsu horri. Hori dela eta, XX. mendearen lehen erdialdian ***Eibar txiki*** goitizena ezarri zioten, lantegi asko zuelako eta gorrizta samarra zelako, agian.

Alabaina, izan du Zubillagak neurri batean bere nekazari alderdia ere. Adierazgarriak dira bertakoek Oñati errekak bereizten dituen auzoaren bi zatiei eman dizkieten izenak: ***Artakale*** zubian gora dagoenari, eta ***Ogikale*** zubitik behera zabaltzen denari. Beharbada behealde horretan garia ereiteko lursail egokiagoak zeudelako, gaur egun denak fabrikaz beteta aurkitzen badira ere. Errota ere inguru horretan kokatzen zen, orain Altunaneko fabrika dagoen erreka-ertz horretan. Dena den goiko aldeko olan ere ehotzen omen zen inoiz.

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Berria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

distira estetika zentrua
Manikura eta Pediku.rak
Solarluma
Gorputzeko Tratamenduak
Aurpegiko Tratamenduak
Depilazioa
...
San Lorentzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

AGENDA

05 MAIATZA

Joseba Arregi 'Azpilleta'ren margolanen erakusketa

> MAIATZAK 4-17
KULTUR ETXEAN

23 urteko gartzelaldiko bizipenak islatuz joan da bere margolanetan Joseba Arregi 'Azpilleta' oñatiarra.

BIDEO EMANALDIAK

> MAIATZAK 12 / 19:00
'Emakumeak euskal gatazka armatuan'.
Asanblada Feministak antolatuta, Gaztetxean.

KONTZERTUAK

> MAIATZAK 22 / 19:30-20:30
Musika Eskolako Haize Taldearen kontzertua.
Otamendi tabernaren kanpaldean.

> MAIATZAK 31 / 19:30
Iker Piris eta Blas Picon.
Pako tabernan. Iker Piris tolosarra eta Blas Picon Bartzelonako blues musikaria.

ERAKUSKETAK

> MAIATZAREN 22RA ARTE
Natxo Santosen argazkiak.
ULMA taldeko zerbitzu zentraletan (Garagaltza 51), astelehenetik ostiralera 8:30-12:30/14:00-17:30.

ANTZERKIA

> MAIATZAK 17 / 19:00
'Novedades en Villa Titiritaina'.
Pake Lekuko taldearen eskutik, Santa Ana aretoan. Haitin eskola bat eraikitzeko proiektuaren alde .

TAILERRAK

> MAIATZAK 9 / 10:30-13:30
'Fabulous Basterretxea!'.
6-11 urte arteko umeentzat arte lantegia Gandiaga topagunean. Prezioa, 3€. Izena emateko: 943716575/ 639051931 arantzazugaur@arantzazu.org

JAIALDIAK

> MAIATZAK 8 / 18:00
Txantxiku ikastolako ikasleen jaialdia.
Guraso guztiei zuzendutako jaialdia Zubikoa pilotalekuan. Mozanbike eta Gazako haur eta familiei laguntzeko tablet baten zozketa egingo da.

> MAIATZAK 9 / 11:00
Txantxiku ikastolaren Eguna.
Jolas parkea, tailerrak eta ate irekiak Santa Ana eraikinean eta plazako pilotalekuan.

> EKAINAK 6
Urgain Eguna.
Herriko ikastetxe publikoek eta bertako guraso elkarteek antolatuta. Musika, jokokak, tailerrak, kirola... eta bazkaria Zuazola instituto aurrean.

IKUSKIZUNAK

> MAIATZAK 9 / 17:00 eta 19:00
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna.
Txantxiku ikastolaren eskutik Zubikoa kiroldegian.

IRTEERAK

> MAIATZAK 10
Mendi irteera. Eskola Kirola.
LH 3-4 mailakoentzat. Araotz -Orkatzategi-Aitzgain-Araotz.

> MAIATZAK 17
Mendi irteera. Eskola Kirola.
LH 5-6 eta DBH-koentzat. Lizarrusti-Otzaurte.

> MAIATZAK 17 / 07:00
Aralarrera mendi irteera Aloña Mendirekin.
Zaldibia-Enirio-Igaratza-Lizarrusti. 19km.-ko ibilaldia, Jentilen galtzadan barrena. Izen-ematea maiatzaren 14ra arte, Aloña tabernan. Bazkideak 10€; eznazkideak 13€ eta langabetuak 5€.

+ INFO
Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.

Zea Mays-en kontzertua

> **MAIATZAK 22**
GAZTELEKUAN
Sarrera 8€. Aldez aurretik 6€ Pako eta Bogan.

AUZOETAKO JAIXAK

> **MAIATZAK 8-10**
San Migel Txiki jaiak.

> **MAIATZAK 15-17**
Murgiako jaiak.

> **MAIATZAK 15-17**
Kasablankako jaiak.

> **MAIATZAK 29-31**
Errekaldeko jaiak.

> **MAIATZAK 30-31**
Araotzeko jaiak.

TOPAKEAK

> **MAIATZAK 15 / 10:00-12:15**
ZIG gelakoen V. Topaketak.
Zuazola Institutoan.

HITZALDIAK

> **MAIATZAK 12 / 17:30**
'Envejecimiento activo y participación'.
Pake Leku elkartean.

> **MAIATZAK 19 / 18:30**
'Azukrea: droga normalizatua?'.
Autoformakuntza saioa Gaztetxean

LIBURUTEGIKO BERRIENAK

LIBURUA
"Historias de San Cristobal..."

LIBURUA
"Nor ezkutatu da..."

CD MUSIKA
"Eko De Bull (Grilletes)"

LIBURUA
"Isis"

LIBURUA
"El minotauro global"

LIBURUA
"Bizi baratzea"

MERKATU TXIKIA

> **Pisua** alokagai Kale Zaharrean. 4 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 650€. Deitu: 645719884

> **Pisua** alokagai Ugarkalden (piso librea). 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela, terraza eta garajea. 650€. Deitu: 645719884.

> **Garajea** alokatzen da Ugarkalde auzoko 2. atarian. Deitu: 629489613.

> **Garajea** alokatzen da Errekalde auzoko 17. portalean. Deitu: 667957848.

> **Garaje** librea salgai Ugarkalde auzoan. 647 515 257 / 610 751 017

> **Etxebizitza** saldu edo trukean aldatuko nuke txikiago bategatik. San Lorentzo 8an dago etxea. 3 logela, bi bainu gela, 2 terraza handi eta garajea ditu. Apartamentu txiki bat nahi nuke. Deitu: 688 603 052

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

OHAR ETA DEIALDIAK

> **KINTTADIA.** 1978 urtan jaiotakoen kinttadia ospatuko dugu maiatzaren 30ean. Animau eta etorri egun polit bat pasatzera lagun artean. Bazkaria egingo dugu Zotz-en. Izena emateko epea, maiatzak 15. Sartu 50€ Laboral Kutxako kontu honetan: 30350170581700029058.

> **TXOSNA BATZORDEA.** Maiatzaren 11n, astelehena, Txosna Batzordeko lehen bilera egingo dugu Antixena Gaztetxean, 19:00etan.

> **UDALEKUAK POTTOKALEKUN** 7-14 urte arteko udalekuak, zaldiak ezagutu, zaindu eta zaldi gainean ibiltzeko. Lau txanda uztailean. Plaza mugauak. Informazioa eta izeneamtea: 670274461 (Jon Elorza).

> **UDAKO ESKULAN ETA SORMEN TAILERRA** LH-1 eta LH-6 arteko gazteentzako tailerrak, ekainaren 22tik abuztuaren 7ra. Papera birziklatu, tapizak, estanpazioak, ogia egin, jolasak... Ingelesa eta frantsesa praktikatuz. Izena emateko: 645499235 (Conchi Moreno) /lanatalanmoreno@gmail.com .

ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Hutsuniak Bete

1. Butakan etzindda hankia ..... egin xat
2. Orduan mutikuak ..... faten gintzuan kriau.
3. Han hasi xakun zarata batian, bere ..... urtenda.
4. Launian hainbestian moldau zan, baiña aldapak agertu ziranian ..... egin eben
5. Bixar goiz iratzarri biharra dakot eta ni banoia .....

Aukerak: onetik / txinddurrittu / meko / bardinberora / tripa truke

Beste era batera esan

1. Aginddutakua ez bete: .....
2. Gaizki pasau; larri ibilli: .....
3. Amorruaz hazka egin: .....
4. Kirtenkerixak esan: .....
5. Bizkarrezur barrenian golpe bat hartu: .....

Aukerak: hazkapuzka egin / hauspokerixak / ipurtxuntxurrekua / berbia jan / gorrixak ikusi

Kurtzegramia

DEFINIZIÑUAK

1. Umien lehenengo hagintxuak.
2. Gehixenetan. Normalian.
3. Zurrunkia.
4. Garrasixa.
5. Arretia. Fundamentua.
6. Ez euririk, ez edurrik, ez lanborik...



Sinonimuak

1. Trebia
2. Motela, txepela
3. Zuri-zurixa ez
4. Edur-jausixa
5. Hotz antza

A. Beluna
B. Edurramilla
C. Artetsua
D. Hozkirrixa
E. Babaloria

Esaera Zaharrak osotu

1. Abenduko eguna, ...
2. Alperraren golpia, ...
3. Bizitza aldiz, astoz edo .....
4. Gaztiak baleki eta zaharrak .....
5. Mariatza euritsu, urtia .....

Aukerak: zaldiz / ogitsu / segurua / baleuko / argittu orduko illuna

OÑATIERAZ EGOGI

'Leikedotsut'

Azkenaldixan gero eta gehixago entzuten dira, batez be gaztien artian, era honetako aditz formak: leikeda, leikedostazu, leikegu, leikedotsut...

Adibidez: *"Emun leikedostazu horko paper hori?"; "Hori di-da batian egin leikeda"; "Zeiñek lagundu leikedosta hau egitten?"*

Forma horrein ordez gure arbasuakandik beste honeik jaso dittugu:

-Emungo dostazu horko paper hori?
-Hori di-dau baten egingo dot.
-Hori aguro egin neike.
-Zeiñek lagundu ahal dost hau egitten?
-Mesede hau egitterik badakozu? Bai, badakot egittia.

ERANTZUNAK

Hutsuniak
1. txinddurrittu / 2. tripa truke / 3. onetik / 4. meko / 5. bardinberora (uhera)

Beste modu batera esabn
1. berbia jan / 2. gorrixak ikusi / 3. hazkapuzka egin / 4. hauspokerixak / 5. ipurtxuntxurrekua

Kurtzegramia
1. txatxur / 2. aixkomente / 3. lokarrasa / 4. garramistu / 5. ganora / 6. aterri

Sinonimuak
1-C / 2-E / 3-A /4-B / 5-D

Esaera Zaharrak
1. argittu orduko illuna / 2. segurua / 3. zaldiz / 4. baleuko / 5. ogitsu

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA

Bigarren komuniuoko mutikuak 1953an

Klaustruaren kanpokaldetik dotore asko agiri dan mutiko-pillatxo honek 1953an egin eben **bigarren komuniua** Oñatiko San Migel parrokixan. Gehixenak **1942ko kinttuak** dira. Orduan hamaika urte inguru eukiko euen, bat gorabehera. Bigarren komuniua maiatzaren akaberan edo bagillaren hasieran egitten zan **Pentekoste-pazkua** alderaedo. Trajia eta korbatia, kurtzia lepotik behera, lazua besuan, meza-liburutxua eta errosarixua guante zuriz babestutako eskuetan: hori izaten zan orduko uniformia. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue gaztetxo oñatiarrok:

Goixeneko illaran: **Patxi Arkauz; Pedro Mari Igartua; Antonio Mugartza; Nikolas Ugarte; Iñaxio Ibarrondo; Jabier Biain; Joxe Antonio Yaniz; Ernesto Plazaola; Joxe Luis Altzelai; Juanito Guridi; Juan Karlos Galdos; Joxe Ramon Arabaolaza**; eta **Joxe Antonio Sologaistoa**.

Erdiko illaran: **Ramon Arkauz; Juanito Arkauz; Joxe Mari Markuleta; Antonio Campos; Juan Joxe Martinez de Zuazo; Juan Igartua** (?); **Luis Mari Errasti; Pedro Aiastui; Felix Igartua; Julian Irazabal; X. X.; Anjel Leturiaga; Luis Aristegi; Iñaxio Astigarraga; Federiko Igartzabal**; eta **Juanito Billar**.

Beheko illaran jarritta: **Antonio Elkoroiribe; Kandido Ugarte; Joxe Elortza; Bixente Elgero; Esteban Urmeneta; Joxe Manuel Molinero; Leonardo Zabaleta** abadia; **Migel Díez** abadia; **Bixente Kortabarria; Joxe Mari Lucas; Emilio Urtzelai; Luis Biain; Antonio Bikuña**; eta **Ramon Idigoras**.

Mutikotan hemeretzi kaletar kontau dittugu; sei zubillagar; garibaitar bakarra; Zañartukua beste bat; Garagaltza auzoko lau; hiru edo lau Uribarrikuak; larrañatarrak lau edo bost; eta olabartarra beste bat. Ia asmaitten dozuen zeintzuk diran. Abade-katekista bixak kaletarrak ziran: Don Leonardo Kale Barrikua eta Don Migel Kale Zaharrekua. Urruxola eta Arao-tzeko mutikuak falta dira, auzo horreik euren parrokixia dakoillako; eta Arantzazu auzokuak be hango basilikan egitten zittuain, dirudienez, komunio bixak, txikixa nahiz haundixa.

J.E

> ESKERRAK
Argazkixa Nikolas Ugartek eskuratu dosku eta argibidirek gehixenak be beriak dira. Milla esker!

* APROVECHATE DE NUESTROS DESCUENTOS POR CAMBIO DE EXPOSICIÓN EN MUEBLES !!!

-60%

-50%

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE

-20%

centro hogar MUEBLES

-30%

-40%

grupo amuebladora mondragonesa

koltxoi leku

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 79 15 03

ARRASATE

Sofa leku

BANAK importa

ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11

ARRASATE